



Kamioi zirkuituei adio erran die Mariezkurrenak → 43

2014ko urriaren 30a | XXXIV. urtea | 625. zenbakia

www.ttipi.net

Bestak

Sanmartinak Aurtitzen eta Aranon

BERA → 16

Kafe Antzerki Zikloa azaroaren 7, 14 eta 21ean

GOIZUETA → 34

Azaro kulturala ekitaldiz beteta dator

BAZTAN → 38

Berdintasun Plana aurkeztuko dute kuartelka

AMAIUR → 43

Nafarroako Sokatira Txapelketa hasiko da

Doneztebeko Feriak | AZAROAK 14



Baserria utzi eta plazara ateratzeko eguna

Azaroaren 14an izanen dira Donezteben feriak. 10:00etatik aitzinera aziendak Merkatuko Plazan izanen dira. Zaldi/behorrak eta behiak gehienbat, baina bertze buruak ere bai. Urteetik urtera azienda guttiago badira ere, oraindik ere jendetza biltzen da ikustera. Eta bitartean, karriketan postuak paratuko dituzte. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izanen dira: Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketa finala eta Inaxio Perurenaren erakustaldia.

Kataluniako prozesuari adi

Sorterritik kanpo dauden arren, eskualdean bizi diren katalanak arreta haundiz ari dira independentziari buruzko galdeketa prozesua jarraitzen. Areso, Elizondo, Erratzu, Igantzi, Lesaka eta Zugarramurdin bizi diren sei katalanekin egon gara.



ERREPORTAJEA → 4-5



XIX. Baserritarren Eguna Arantzan azaroaren 1ean

Baserriko produktuak, eskulanak, nekazal tresnak, aziendak, ahari eta gazta lehiaketak... → 20

BAZTAN → 3

Jo ala Jo Kultur Taldeak 15 urte bete ditu

Ospakizun artean ospatuko dute azaroaren 1ean Kirikoketa Besta. Sagardoa egiteko prozesu osoa ikusi, muskaz gozatu eta jan-edanerako aukera izanen da Arizkungo Gamioxa-rran.

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **info@ttipi.net** era

| | | | | |
|---|--|--|---|--|
|    <p>Azaroak</p> <p>Berako agenda</p> <p>Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonozan edo www.berakoagenda.net</p>  | <p>1 ABESBATZA KONTZERTUA: Maska Youth Choir (Letonia)</p> <p>LARUNBATA 20:00 · Kultur Etxean Sarrera: 6€ Antolatzailea: Berako Abesbatza</p> | <p>17 SANTA ZEZILIA EGUNA 18:00 Musika eskolan</p> | <p>Julio Caro Barojaren mendeurrena</p> <p>24^{AR} ERAKUSKETA: Don Julioaren Arrastoa Berako Kultur Etxean</p> <p>23^{TS} INAUGURAZIOA: Urriak 24 · 19:00</p> <p>ORDUTEGIA: Asteleheneran ITXIA Asteartetik ortziratera: 17:00-20:00 Larunbata eta igandea: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00</p> | |
| | <p>XVI. Berako Nafje Antzerki Zikloa 2014</p> <p>Antolatzailea: Bortziriko Euskara Markomunitatea Laguntzailea: Berako Kultur Batzardea</p> | <p>17 AURKEZPENA: Uraren egungo egoera Beran eta aintzera begira egin beharrekoak</p> <p>ASTELEHENA 18:00 · Beralandeta</p> | <p>23 HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA: Konpost eroak (Zirika Zirkus)</p> <p>IGANDEA 17:00 · Eskolako frontoian Antolatzailea: Gure Txakoa Elkarte</p> | <p>9 ANTZERKIA: Los viajes de Don Julio (Emaitza taldea)</p> <p>IGANDEA 18:30 · Kultur Etxean · Sarrera: 3€</p> |
| | <p>7 ERDALDUN BERRIEN KLUBA (Olatz Pagaldai)</p> <p>ORTZIRALEA 22:00 · Errekalde Ostatuan</p> | <p>29 DOKUMENTALA: Bortziriak. Uraren magaletan, euskararen bidean</p> <p>LARUNBATA 19:30 · Kultur Etxean Antolatzailea: Bortzirietako Euskara Markomunitatea</p> | <p>15 OMENALDIA 19:30 Kultur Etxean</p> | <p>16 OROITZAPENEGEKO EKITALDIA Iruñeko Orfeoiaekin</p> <p>LARUNBATA 12:00 · Hillerian KONTZERTUA: Iruñeko Orfeoia 12:30 · Kultur Etxean</p> |
| | <p>14 URAK TTIKI DIRE (Gilkitxaro Taldea)</p> <p>ORTZIRALEA 22:00 · Katakua Ostatuan</p> | <p>29 BERA KANTARI 19:00 Ilekuetatik hasita</p> | | |
| | <p>21 KOKAKOLA ETA BAREA (Ramón Agirre eta Inazio Tolosa)</p> <p>ORTZIRALEA 22:00 · Auzoa Ostatuan</p> | | | |

Azaroak 7, ortziralra
22:00etan, Errekalde ostatuan
Olatz Pagaldai

“ ERDALDUN BERRIEN KLUBA ”

Azaroak 14, ortziralra
22:00etan, Katakua ostatuan
Gilkitxaro taldea

“ URAK TTIKI DIRE ”

Azaroak 21, ortziralra
22:00etan, Auzoa ostatuan
Ramón Agirre eta Inazio Tolosa

“ KOKAKOLA ETA BAREA ”

BERAKO

KAFE

ANTZERKI

ZIKLOA

2014



Duela 15 urte sortu zen Jo ala Jo Kultur taldea, «ohiturak, folklorea eta kultura herrikoia ezagutu eta gaurkotzeko interesak elkartuta». Ezagutza «liburuetatik plazara» ateratzen

dihardute Kirikoketa, Inaute aroko ospakizunak eta Baztango jauziak berreskuratuz. Azaroaren 1ean egingen duten Kirikoketa Besta da euren ekitaldirik nagusienetakoa. Interesa

dutenek Gamioxarren dute hitzordua «XVIII. mendera ematen duen lehio batetik begiratu, jotako sagarra usaindu eta kirikoketa sortu zen testuingurua besta giroan ezagutzeko».

Jo ala Jo Kultur taldea | 15. urteurrena

«Gure sustraiak ezagutu, hedatu eta gaurkotuta plazaratzea da asmoa»

Eneritz IRAOLA | ARIZKUN

Noiz eta nola sortu zen Jo ala Jo kultur taldea?

1997. urtean, orduko Baztango Gazte Asanbladak antolatu zuen txalaparta ikastaro baten harira sortu zen. Bertan ikasi genuen Kirikoketa zer den eta gure eskualdean euskal perkusioko aldaera bat noizbait izan zenaren ideiak liluratu gintuen. Hala, 1999. urtean Jo ala Jo Kultur Taldea sortu genuen, jendarte honetako sustraiak ezagutu, hedatu eta gaurkotasunez plazaratzeko. Hasieratik, herritarrak izan dira protagonistak eta inplikazio eta parte hartze handia lortu da, gaur egun oraindik badira uena.

15 urte hauetako ibilbidea nolakoa izan da?

Hausnarketetan beti izaten dugu autokritika latza baina atzera begiratzeari bezalakorik ez dago eraikitakoaz jabetzeko. Maitasunetik egindako lana da, lana aisialdi bihurtua. Gure nortasuna taldean egindako jardunak zizelkatu du nolabait, eta kontent gaude. Kultura herrikoia erabiarazteko abiapuntutik herrigintzan murgildu gara eta hasierako pausuetan ez genuke imajinatu ere egingen Dolaretxe bat zaharberri eta funtzionamenduan jarriko genuenik, mutildantzak menperatzen dituzten dantza-erakusleak aterako zirenik, geronek sortutako mu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Azaroaren 1ean, Arizkun dute hitzordua Kirikoketaren sekretuak ezagutu nahi dituztenek.

tildantzak dantzatzera iritsiko ginenik... Jakintzan murgiltzen zaren neurrian bide berriak irekitzen dira, eta hauek bide berrietara eramaten zaituzte. Azken aldian sargardogintzari bultzada bat ematea dago gure helburuen artean. Baztanen sargardoa eta piterra egiten duten etxeen zerrenda bat egin eta harremanetan jarri gineniaz. Aurten sargardoa eta sagarra dastatzeko ikastaroak antolatu ditugu bi egunez, jendea sargardoa eta piterra egitera animatzeko lehendabiziko pausua hauek ezagutzea baita. Bide batez, sozioekonomian eragiteko gure apurra jarriko dugu ahal bada.

KIRIKOKETA

«Gizakiak lana eta josteta, biak uztartzeko joera izan du. Taldean egiten den lan anitzetan koordinazioa behar da lana jasangarri egin eta joko bihurtzeko. Erritmoak erabiltzen dira inolako asmo musikalik gabe, batzuetan kantuz lagundurik. Sagarjoleak gainera, lanak akitzean lan tresnak hartu eta larrainera ateratzen ziren pats-oholean piseo edo mazekin joz laneko joku erritmikoak errepikatzen, oraingoan asmo musikalez».

Nondik eskuratu duzue informazioa?

Hariari tiraka batzuetan, kasualitatez bertezetan, orduak sartzen betiere, aurki daiteke eta denon eskura dago, paperetan eta pertsonetan. Zorte handia dugu historian zehar adituak gure inguruetan ibili zirelako eta dabilzalako. Han hemenka aurkitu ditugun baseritar anonimoen ekarpenak ere garrantzitsuak izan dira. Baina dudarik gabe, Larralde aita semeek egindako ikerketak eta transmisiorako duten bokazio eredu garria dira guretako iturririk oparoenak. Patsa lantzen erakustera, Yartu Elkarteak etorri ziren. Sagarra nola heda eta jo

dolarean eta patsa nola tinkatu erakusteko, Berako Antonio Irazokiren laguntza izan genuen, baita Fermin Otxandorena lekaortzarrarena ere. **Gamioxar berritzeko lanak nola egin ziren?**

Jo ala Jo taldearen sorreratik beretik jakin genuen dolaretxe hau bazela, gure egoitzatako hartu genuen errentan, eta orduz geroztik guztiz hondatua zegoena pixkanaka zaharberrietz joan gara, 2005ean lehendabizikoz martxan jarri eta Kirikoketa Besta bertan egitera pasa ginen. Dena auzolanean egin da. Dolaretxe zenbait bisitatu genituen, dokumentatu, aholkuak eskatu...

Etorkizunean zer?

Gustatuko litzaziguke Dolaretxea guztiz egokitzea. XVIII. mendeko eguneroko bizitzaren interpretazio gune gisa, gune hortan ogia erauzteko eta bertze lanetarako jendea elkartzen zen, eguneroko bizitza soziala hor mamitzen zen, eta guzti horren isla izatea nahiko genuke. Bildutako materiala eskura egonen den leku bat sortzea, Baztango Folklore Eskola? Utopikoa agian. Oraingoan behintzat, orain artio bezala, xera-xera, herritara kirikoketa, gaita, xulubita eta ttun ttun doinuak eramanen ditugu, dantzatu, antolatu eta batez ere, egiten dugunarekin ongi pasatu.

KATALUNIA → PROZESU SOBERANISTA

Sorterria bihotzean independentziari buruzko galdeketari begirik kendu gabe

Erabakitzeko eskubidea aldarrikatu dute eskualdean bizi diren katalanek

Herritik kanpo dauden katalanak ere arreta handiz jarraitzen ari dira Kataluniaren independentziari buruzko galdeketaren prozesua. Nola bizi duten azaldu digute eskualdean bizi diren sei katalanek.

G. PIKABEA

Kataluniak estatu izan behar al luke? Eta erantzuna baiezkoa bada, Estatu horrek independentea izan behar al luke? Bi galdera horiek egin nahi dituzte Katalunian azaroaren 9an, baina galdeketa egiteko bidea ez da erraza izaten ari. Azaroaren 9rako deitua dagoen independentziaren inguru-

ruko galdeketari eusteko asmoak aitzinera segitzen du. Ez, ordea, hasiera batean CIU, ERC, ICV eta CUP alderdiek aurreikusitako bezala.

Kataluniako Parlamentuak irailaren 19an onartu zuen Kantsulta Legea eta irailaren 27an sinatu zituen Artur Mas Generalitateko presidenteari galdeketaren legea eta



deialdia. Berehala etorri zen Espainiako Gobernuaren erantzuna. Espainiako Auzitegi Nazionalak Gobernuaren helegiteak onartu zituen eta behin-behinean bertan behera utzi zituen Kantsulta Legea eta galdeketa deitzeko dekretua. Hala, Kataluniako Gobernuak bertze bidea hartu zuen. Eta bere aldetik hasi zen

Artur Masen Gobernuaren 9rako galdeketa bat antolatu dute eta horren arabera, 16 urteko goitiko guztiek izanen dute Generalitatearenak diren egoitzetan botoa emateko aukera. Galdeketa hau, baina, behin-behineko kantsulta izanen omen da eta behin betiko galdeketa hauteskunde plebisitarioren bidez

egindakoa izanen omen da. Omnium Culturelek eta ANC Kataluniako Biltzar Nazionalak proposamen berri hau babestu dute, baina bi eskaera egin dizkiote Masi: batasun politikoa eta hauteskundeak hiru hilabete baino lehen deitzea.

Ikusi egin beharko da hemendik azaroaren 9a bitarte zer gertatzen den.

ESKUALDEAN BIZI DIREN KATALANAK SOLASEAN



Marta FERRERAS | ELIZONDO

«Eskubide osoa dugu etorkizuna erabakitzeko eta lege bidegabe batek ez luke galarazi behar»

Urtebete bada Elizondon bizi dela, baina Mataron sortua da eta adi erreparatzen dio Kataluniako prozesuari. «Hedabide eta Kataluniako testuinguru sozialaren bitartez» izan omen zuen kantsultaren berri eta «gutziz logikoa eta beharrezkoa» iruditzen zaio prozesuaren ibilbidea, honela, «eskubide batzuk defendatu eta maila politiko eta sozialean aldaketa lortzeko».

Oroitarazi du «duela bi urteko Diada Egunean, milioi eta erdi katalan atera ginela kalera independentzia aldarrikatzera. Urteotan Kataluniako herria bizirik dagoela ikusi da, nortasun katalan sendotua rekin, eta 2013ko giza katea horren adibide da». Oraingo Kataluniako Gobernuak ez duela ordezkatzen onartu arren, «gutziz ados» dago kantsultaren prozesuarekin: «demokraziaren barne, katalanok eskubide osoa dugu gure etorkizuna erabakitzeko, eta bidegabeko lege batek ez luke galarazi behar. Legeak alda daitezke. Borondate eta errespetu kontua da». Galdeketa botorako aukera izanen lukeenez, garbi du berea: «bai eta bai». Eta etorkizunean zer? «Prozesu demokratiko baten barne, independentzia lortzeko eta Països Catalans-en Errepublikak eraikitzeko» lan egin beharko dela dio.



Ramon ALGUERO | ARESO

«Sentimendu nazionalistak estatu espainiarrarekiko dagoen haserrearekin bat egin du»

Sortzez Bartzelona hirikoa da Ramon, baina landa eremuko bizitza erakarritza ailegatu zen gure ingurura, eta 1983tik Areson bizi da. Onartu digunez, «ilusioz» hartu zuen Kataluniako independentziaren inguruko herri galdeketa berria. «Katalunian urte luzez izan den sentimendu nazionalistak estatu espainiarraren etengabeko mespretxu erasotzailearekiko dagoen haserrearekin bat egin du» eta Alguerorentzat hori izan da prozesuaren gakoa. Kataluniako Gobernuak hasiera batean hartu zuen bidea «logikoa» iruditu zitzaion, «kontuan hartuz Espainiako Gobernuaren dinamika zein den; denari ezetz esatea da bere politika bakarra». Berak argi du galdeketa botoa emateko aukera edukiz gero, independentziaren alde bozkatu lukeela, «Kataluniak merezi du». Are gehiago, galdeketa egiten bada, partehartzea «masiboa» eta baiezkoa nagusituko dela dio. Galdeketa egiten ez bada, aldiz, «gizartean frustrazio sentimendua sortuko dela» aipatu digu eta independentzia lortuta, beriz, «Kataluniari ongijoiaren zaiola» uste du. «Prozesu honi esker Katalunia indartsuago eta elkartuagoa bihurtzea». Hori da «gutxienez» espero duena.

ESKUALDEAN BIZI DIREN KATALANAK SOLASEAN



Diana INIESTA | ERRATZU

«Kontua ez da ez dugula espainolak izan nahi, kontua da katalanak garela»

Duela zortzi urte, bizitzari bira bat ematea erabaki zuenean ailegatu zen Baztanera eta Erratzun bizi da. Sabadellekoa da eta beretako «kontsulta duela urte aunitz hasitako prozesuaren parte da». Hala oroitarazi digu 1979ko Estatut d' Autonomia. «Zoritxarrez, 35 urte beranduago eztabaida bera dugu». CIUk «gibelera» egin izanak «tristetu» duela aitortu du: «krisi garaian, baloreak bakarrik gelditzen dira, oinarritzakoak dira etorkizunari sendotasunez eta koherentziaz aurre egiteko. Aldaketa ausardiarekin egin behar da, egungo gizartearekin eta bereziki Kataluniakoarekin bat ez datozen arau zaharkituak urratuz». Espainiako Gobernuak «jarrera immobilista, zaharkitua eta iraganean, boterean eta hertsaduran oinarritua» duela dio: «2006an Estatut Catalá berritzea Konstituzioaren aurkakoa zela erran zutenak dira orain erabakitzeke eskubidea ukatzen dutenak». Bere irudiko, «penagarriak» dira «CIUren erabakia eta ERCK alde-bakarreko independentziarako muturreko nahia adieraztea. Herriak solastu behar du eta herria denok osatzen dugu». Kontsulta alternatiboan ez omen luke parte hartuko. Hasierakoan, bai, independentziaren alde. Galdeketa ezetzak irabaz dezakeela dio, baina ez du garbi arrazoia: «katalanak autodeterminazioaren aurka daudelako edo Espainiako eskuinak independentziak onorioak, batez ere ekonomikoak, izanen dituela aldarrikatzen delako». Argi du etorkizuna autodeterminazioa dela: «kontua ez da ez dugula espainolak izan nahi, kontua da katalanak garela».



Cristina ARBUÉS | IGANTZI

«Espainiako Gobernu eta prentsa, independenten fabrika haundiak dira»

Terrassa bere sorterrian bizi zenean hasi zen Berako Manttale eta Burlatako Hiru Herri taldeetan lasterka eta hara non, 2007tik Igantzin bizi da familiarekin. Aitor-tu digu «harriduraz» hartu zuela galdeketa berria, «Katalunian sentimendu independentista betitik izan bada ere, Kataluniako Gobernuak ez zuelako sekula halako urrats nabarmenik egin». Herriak prozesuari «babes haundia» ematen diola uste du, eta Kataluniako Gobernuaren aldetik «aurkakako edozein keinuk hurrengo hauteskundeetan eragina» izanen duela gaineratu digu. Espainiako Gobernuak, berriz, «prentsaren zati batekin independenten fabrikarik haundiena dela» dio: «denari ezetz errateko bere jarreraren eraginez, zalantziak dauden katalan aunitzek independentziaren aldeko mugimenduetekin bat egin dute». Eginen balitz, ez du argi zein izanen litzatekeen galdeketa emaitza: «independentziaren aldeko mugimendua hagitz zaratsua bada ere, zaila da manifestatzen ez direnen iritzia jakitea». Berak, ordea, botoa emateko aukera izanen balu, «seguruenik» independentziaren alde eginen omen luke. «Independentzia lortuta, inork ez daki ziur zer gertatuko den maila ekonomiko eta sozialean, baina gertatzen dena gertatuta ere, etorkizuna oparoa izatea espero dut». Garbi duena da «independentziarekin ala gabe, maila politikoan zerbait aldatu beharra dagoela, gaur egun honetaz bigarren mailan solasten bada ere, Pujolen oinordekoek, Milleten lagunek... segitzen baitute gobernatzen».



Carles BELDA | ZUGARRAMURDI

«Jendea eta politikariak sinkronizatuak gaude eta hori ona da»

Azken hamar urteotan Zugarramurdi bizi da, baina sortzez Sabadellekoa da. Aipatu digunez, «aski kontent» jarri zen kontsultaren berri izan zuenean: «garrantzitsuena aitzinerat gatea da». Bere hitzetan, «jendea eta politikariak sinkronizatuak gaude eta hori ona da». Kontsultaren prozesuak egin duen ibilbidea ere bide onetik doala ikusten du eta gaineratu digunez, «normalki, katalanak errealistak gara eta horregatik lanean ari gara». Kataluniako Gobernuaren lanarekin ere baikor mintzo da, berak argi baitu «afera helmuga dela. Masen proposamen berriaren helburua ere berdina da, argi eta garbi, eta gero eta argiago dut». Espainiako Gobernuarentzat, ordea, ez du aldeko hitzik: «inperio zahar eta txar bat da eta kolonialismoa du buruan. Bertzeak beraien menpe eduki nahi ditu eta ez du sekula fitsik kunplituko». Aukera balu, gustura emanen omen luke galdeketa botoa eta ez du zalantza pizarrik ere zer bozkatuko lukeen: «animaleko baietza». Eta zergatik? Bada, «ni katalana naitzelako, ez da bertzerik». Nahiz eta berak bere botoa argi duen, «ez nago seur» galdeketa zein izanen litzatekeen emaitza: «itxuraz, baiezkoak irabaziko duela dirudi, baina begira zer gertatzen den Eskozian». Kontent dago, «guttienez» gaia mahai gainera ateratu dutelako, eta «independentzia lortuko den ez banago seur ere, lanean ari gara, eta irabazteko lan egin behar da». Kataluniako herriak bi aukera zituela azaldu digu: «desagertu ala irabazi. Eta ernatu gara, irabazteko aukera badagoelako».



Eva GARCÍA | LESAKA

«Espainiak horrela segitzen badu, independentzia nagusituko da»

Orain dela lau urte utzi zuen bere sorterria, Bartzelona hiria, eta Lesakara etorri zen. Geroztik, hemen bizi da. Azaldu digunez, bera honat etorri aitzinetik herrietan kontsultak egiten hasiak ziren, «alderdietatik independente, herriekimenez», eta hortaz, ez zuen harritu Kataluniako Gobernuak kontsulta iragartzea. Are gehiago, «alderdiek herria nola zegoen aprobeztatu zutela» dio, «babes haundiagoa lortzeko». Prozesua «zailtasun haundiek» ikusten du, baina begi onez hartu du Kataluniako Gobernuaren proposamen berria. Ongi iruditzen ez zaiona «Espainiako Gobernuaren betoa» da. Erreferenduma eginen dela iruditzen zaio eta aitortu digunez, aukera balu, «gustura emanen nuke botoa». Galdeketa egitearen alde badago ere, ez du hain garbi bere botoa: «ez dakit independentziaren alde edo aurka bozkatuko nukeen. Ez dakit erabateko independentzia nahiko nukeen, baina egiazko eredu autonomikoa behintzat bai, autonomia eta kudeaketa propioa izatea». Edozein moduz, garbi utzi nahi izan du, «ez zaidala batere ongi iruditzen kontsulta egiten ez uztea. Demokrazian mundu guztiak izan behar du erabakitzeke eskubidea». Galdeketa «orain» eginen balitz, «ezetzak irabaziko lukeela» dio, «nahiz eta emaitza nahiko berdindua aterako litzatekeen». Denon den, bere hitzetan, «Espainiako Gobernuaren jarrerarekin gero eta jende gehiagok nahi du independentzia eta orain arte bezala segitzen badu independentzia nagusituko da, ez baita hagitik normala bere jarrera».



Nire txanda
Ruben GARATE

Usoak

Urri hondarrean eta azaroan sartzean, usotaz solastean, uso pasa edo Etxalarko usotegiak edo ehiztariak mendian pasatzen dituzten orduak aipatzea da logikoena. Baita bazuetan, eguraldiak, punteriak eta suerteak laguntzen badu, bakarren bat nola hiltzen duten erratea ere. Oraingoan ordea, ez naiz uso horietaz arituko; herrietan eta batez ere hiri handietan ikusten diren horietaz baizik. Zein politak diren taldeka hegatzten direnean, ume artean saltoka, eta soberan uzten ditugun berenduen ogi papurrak janez. Baina honek ere, gauza gehienek bezala, badu bere gibleko aldea ere. Zer egiten dute uso hauek ikusten ez ditugunean, non egiten dute lo? Zer kalte eragin dezakete kabia egiten duten etxe edo eraikin historikoetan? Hor hasten da hain polita eta idilikoa ez den bigarren zatia, arrazoi ezberdinetatik gure inguruan agertu eta laketzen duten usosaldoena. Toxikoak eta gaixotasunen eramaleak dira eta zer erran uzten duten kakaz eta zikinkeriaz. Hondatzen dutena eta sortzen duten kalteaz. Konpentsatzen al du guzti hori plaza eta teilatu gaintako hegaldien edertasunak?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Garai zailak poesiarako

Larrakzen, orbel, xamur, xume, eztiki, zirimola, ihintza, lanbroa, xarmant, ortzimuga, xuxurlatu edo maitekiro hitzekin ez du zaila izan behar poesia egitea. Aldiz, osatu olerki bat solas hauekin: Ebola, txartel opakoa, LOMCE, patera, harrobia, leherketa, ministroa, Abiadura Handiko Trena, lepo-moztea edo Volkswagenean BEZa... Ez da erreza!

Nabarmentzekoak



Ander ERRANDONEA
Berako pilotaria

Nafarroako 22 urtez behetiko txapelketa irabazi zuen, finalean Jon Olai-zola lesakarrari irabazita eta biharamunean, Errioxako Gobernuaren txapelketa irabazi zuen gazte mailan binaka.



Javier MARIEZKURENA
Doneztebeko kamioi pilotoa

Hamabi denboraldiren ondotik, urriaren 12an egin zuen Europako txapelketako azken karrera Le Mansen (Frantzia). As-tebete lehenago Espainiako txapelketan hirugarren izan zen Jaraman.



Tiburcio ARRAZTOA
Eliza, apezak eta pilota

Entre Dios y la pelota liburua aurkeztu du Laxoa Elkarteko presidentek, bere hirugarren liburua. Eliza eta pilotaren arteko harreman estua azaltzen du, apez pilotariak, Angelusa...

Atzera begira → 2004-XI-04 / TTIPI-TTAPA 385 zk.



Tren maketak egitea afizioa duen Antonio de la Cruz-ekin

«Nere ilusiorik handiena Bidasoako Trena berriz ere martxan ikustea da, ez beharbada komertzialki, baina bai turistikoki, nik uste dut aunitz galtzen ari garela horrelako aukera bat ez aprobetxatuz» aipatu zigun Antonio de la Cruzek. Madrildarra sortzez, jubilatua zenean Berara etorri eta sotoan duen tren-maketa erraldoia erakutsi zigun, 300 metro-kable baino gehiago zituena. Trenbide-tarako afizio ikaragarria zuen, «bapozeko tren bat ibiltzen ikustea munduan dagoen ikuskizunik ederrenetakoa dela uste dut» zioen. Bere maketak «zirkulazio automatikoa du ibibide osoan, estazioan kenduta».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

| | | | | | |
|--------------------|-------------|-----------------------|-------------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria |40€ | Europa |59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka |34€ |
| Ipar Euskal Herria |59,50€ | Amerika eta Australia |124€ | Leitza |17€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Zuek ez zenituzten 'grisak' ezagutu

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Euskal Herrian maiz zaharrek errespetu falta handiarekin tratatu dituzte gazteak. Baieztapenak kontrako iritzi aunitz sortuko ditu bere horretan, gaztetxoak etxean eta eskolan kolpatuak izatek kolpatzaile izatera pasatu direnean. Baina hala da; zaharrek maiz errespetu faltarekin tratatu dituzte gazteak, maila politiko batean. GAL agertu zen garaiko belaunaldikoak gara gu, Lizarra-Garaziko su-etenaren gertatu zenean kontzientzia politikoa hartu zuteneko. Zenbati ez ote diote zaharragoek erran «zuek ez zenituzten 'grisak' ezagutu?». Esaldi horrekin bukatu nahi ziren, eta dira, oraindik ere, zaharren eta gazteen arteko eztabaida politikoak. «Zuek ez zineten bizi Franco zegoenean, zuek ez zineten 'grisen' aitzinean lasterka ibili...», halakoak erabili dira «Ixo! Ez duzue kezarako eskubiderik» errateko. «Gure garaiak bai gogorrak». Frankismo bukaeran eta transizioan gazteak zirenen aldetik etorri izan dira gure belaunaldiari egindako kritika horiek; aunitzetan, orduan polimilien inguruan ibilitako jendearen aldetik, baina baita gerora ere ezker abertzaleko jarraitzaile izaten segitu dutenen aldetik ere. Norberaren garaiko borroka ona zen, orduan bai iraultza justifikatuta zegoen, eta orduko errepresioa gogorrenetan gogorrena zen. Gero gertatu dena, bizioz keztatzea. Baina errealtatea da gure belaunaldiak hori horrela zela onartu duela, ez duela zalantzan paratu aitzineko garaiak gogorrak ez zirenik. Grisa daltonikoen kolorea dela erraten da, eta agian daltonismo horrek eragotziko zien 'grisen' aitzinean ibili ziren horietako aunitzei ondoren etorri ziren urdinak, gorriak, beltzak eta inoiz joan ez diren berdeak ere bereizten. Garai bateko gazte errebelde horiek guttietsi egin dute ondorengo gazteek pairatutakoa. Garai bateko gazteek, zahartzerakoan, Poliziaren radarrean egoteari utzi zioten. 1990ko hamarkadatik honat ez dute bertatik bertara ezagutu zer den kontrol batean beldurra pasatzea, eta, hortaz, arazo horrek existitzeari utzi dio. Belaunaldi horrek argudiatu ohi du gure belaunaldia bizio material guztiekin hazi dela; hortaz, borrokarako arrazoiak desagertu ziren? Aunitzetan, gainera, bere garaian pistolekin ibilitakoak ere ausartu izan dira pistolak soilik Poliziaren eskuetan ikusi dituzten gazteei lezioak ematen. Alde batera uzten dute gaur egun 30 urte baino guttiagoko gazte pila bat daudela Poliziak torturatutakoak, gehienak inoiz pistolarik ikutu gabekoak, gainera. Ausartu, eta erran horiei zein gogorrak ziren zuen garaiak eta zuek orduan bai, bazenutela borrokatzeko eskubidea, baina gerora dena gaizki egin dela. Belaunaldien arteko gatazkak beti gertatu dira historian. Agian hemendik hogeitaz urtera gure belaunaldia hasiko da lezio merkeak ematen gazteagoei. Espero dezagun, ordurako, lezioa guk ikasi izana. Ez dezagun ahan-tzi Numantzia zaharrek errenditu zieten erromatarrei, gazteak borrokan segitzeko prest zeuden bitartean.

Txartel beltzaren arin-arina

Joseba URKIOLA

Beltz jarri da jendea, txartel beltzekin beltzez jantzitako gizonek egin dituzten erabilera beltzekin. Hitzik gabe, nazka aurpegiarekin eta etsipen ukituarekin geratzen da bat Bankia kudeatzen zuten ordezkarien inguruan plazaratutako berriei. Egunak aurrera joan ahala, astakeria eta handikeria gehiagoz jabetzeko aukera. Elur bolak gainera, momentuz, ez du etenik. Urrun da guretik Madril; baina aipatu notiziek idazki hau irakur dezaketenean ororen poltsikoak eta zentzuak mindu ditzakela kontuan hartuta, ezin aukerari muzin egin.

Espainiar estatuko eskubiko, ezkerreko eta sindikatuetako ordezkari askok dantzazazki dituzte artez Bankiak eskusiban emaniko txartel preziatuak. Ze nezesidade? Hori lurtar gehienek eginiko galdera. Erantzuna garesti dago, oso garesti. Beste behin ere argi geratu da denboraz gain, dirua ere poligrafo garrantzitsua dela. Kupida gabea, animarik ez duena eta askoren lotsak lasai asko plazaratzen dituen. Bihotza bigarren plano batean uzten du eta ideologiak berarekin, aldatu egin daitezke. Halakoxea da kapitalismoaren ikur nagusienetako bat. 83 kontseilari zeuden Caja Madrilen lehenengo eta Bankian ostean. Guztiei eman zitzaizkien txartel beltza. 4k bakarrik ez zuten erabili. Beste guztiak tranpan era gozoan erori ziren. Eta guztietan bi dira gustoz dantzazazki eta zukutu dutenak. Miguel Blesa eta Rodrigo Rato. Aznarrek kuttun zituena pertsona bi. Miguel Blesarekin Errioxako Ogasunean egin zuen lan ikuskari gisa. Rato berriz, Alderdi Popularrako ekonomiaren magotzat hartu zuten. Bada badirudi amaitu dela magia. Oraingoan ez daukate biek ere atzera bueltari. Milioika euro irabaziazatik hilerok, bi hauek ezintasuna nabarmena izan da. Miguel Blesak 423.068 euro gastatu zituen txartelarekin. Ratok berriz, 99.041 euro. Komeni da zenbakiak behin eta berriz irakurtzea, atzerakoa ematen dute eta.

Katalunia eta Ebola izan dira azken asteetan gehien aipatu nahi izan dituzten albisteak. Baina Espainian goi mailetan iruzurrarekin gertatzen ari dena izugarria da. Ba ote dago iruzurrik egin gabeko agintaririk? Lehen aberastuak daudenak, oraindik eta gehiago gastatzen. Izozkietan, luxuzko bitxietan edo zineman krispetak erosteko erabili dute aipatu txartela. Harri eta zur geratzen da bat. Hauxe da bada, sasoi bateko arduradunak uzten ari diren herentzia. Hilabetea hilabetearekin osatu ezin duten familia mordera batetik, kapritxoaren unibertsoan iparra galduta daukaten pertsonak bestetik. Galdetu ezkerok inork ez du ezer egin, baina ikerketek txartel beltz guztien gastua 15,5 milioi eurokoa dela diote. Eta hori noski, egia berdaderoa da. Ez dut pentsatu ere egin nahi, diru guzti hori zertarako erabili ahaliko zen. Etxeko gaixoak laguntzeko, hezkuntza sendotzeko, langabezia sustatzeko edota osasungintzak dauzkana puntu beltzak zuritzeko zeinen ondo etorriko lirake. Baina Madrilen batetik hamar eta hamarrek bat ere ez modan dago, eta hau horren erakusgarri. Honek gainera ez du sendabiderik. Tristeia baino hala da.

Irakurleak mintzo

Brigada
Antifaxista
Donbass-eraJon APEZETXE MURUA
(Erratzu)

Novorrosia, izen berria eta aunitzentzat ezezaguna izan arren, Ukraina herrialdearen ekialdean aurkitzen da Errusiarekin muga eginez.

Ukrainako egoera politikoa zeharo ozpin du da aurtengo otsailan Kieven, bertako hiriburuan hasi ziren protestak aprobetxatuz, ultraeskuindar alderdiek (svovoda, pravi sektor...) emandako estatu golpearen ondoren. Errusiar izaera orori (kultura, hizkuntza...) gorrotoa dioten faxistek boterea hartu bezain pronto, ekialdeko biztanleriaren kontrako eraso bortitza abiatu dute, bertakoak baitira errusiar hiztunak eta kultura errusiarra dutenak. Etengabeak dira Ukrainako Guardia Nazionala eta oligarka aberatsak finantziatutako izaera nazia duten paramilitarrek egiten dituzten erailketa basatiak. Eguneroko ogia bihurtu dira eskola, ospitale eta merkatuen kontrako bonbardaketak; auni-

tzetan debekatutako armamentua erabiltzen dutelarik jendarte zibilaren kontra (errazimoko bonbak kasu).

Faxista hauei aurre egiteko, Novorrosiako (Ukraina ekialdea) biztanleriak armak hartu behar izan ditu. Ez dira hauek izan gerra abiatu dutenak; gerra gainera etorri zaie eta arma bidez erresistitzea bertzerik ez zaie gelditu. Gaur egun, miliziano antifaxista hauek ikaragarriko moral zein indarrez, militarri aunitzez indartsuagoa den Ukrainiar armada gibelerabota dute Novorrosiako zonalde askotatik.

Milizia hauei gure elkertasuna adierazi eta jendarte zibila zein egoeratan aurkitzen den eta bide batez hauei laguntza humanitarioa helarazteko, Banda Bassotti talde italiarrak antolatutako brigada antifaxistarekin bat eginez, Luhansk eta Donetsk hirietara joateko intenzioarekin abiatu ginen iraila bukaeran. Lehenengo geldialdia Moskun egin genuen bertako areto batean Banda Bassotti taldeak kontratu bat eskaini zuelarik. Ondoko egunean autobusa hartu eta Novorrosiarantz abiatu gi-

nen karabana osatzen genuen brigadista guztiak (italiarrak, gaztelarrak, greziarrak, asturiarrak, andaluziarrak eta euskal herritarrek). Bidean gindoazela pasatzen ginen eskualdeetako herritarrek ongi etorria egiten ziguten musikari, opari eta guzti.

Mila bat kilometro autobusez egin eta gero Errusiako Donetsk herrira ailegatu ginen zuzenean Novorrosiako Luhansk herrira sartuko ginelakoan. Herri horretako jeneral bat eta ordezkari politiko bat gure bila etorri ziren arren, Minskeko su-eten akordioaren ondotik mugak nazioarteko begiraleen zaintzapean zeuden eta dokumentazio arazo batzuk tarteke ezin izan genuen muga gurutzatu.

Novorrosiako ordezkariak muga gurutzatzeko izan genituen arazoak jakitun gugana hurbildu ziren Errusiako Donetsk herrira eta beraien herriak bizi duen hondamen egoerari buruz luze eta zabal solasteko aukera izan genuen.

Argi utzi ziguten gure herrian hain hedatua dagoen informazioa gezurra dela, beraiek ez direla erusiazaleak. Be-

raiek Ukrainarrak sentitzen direla baina Ukraina nazi baten alde ez daudenez armak hartu eta Novorrosia independente bat aldarrikatu dutela. Beraien borroka askapen borroka bat dela, Europa eta Estatu Batuek babestutako faxismoaren aurkako askapen borroka. Porochenko buru duten eta jendarte zibila heriotzaz zigortzen duen ultraeskuindarren kontrako erresistentzia borroka alegia.

Novorrosiak aitzinera begira izan dezakeen proiektuari buruz galdetuta, oraingoz gerra irabaztea bertze nahirik ez dutela adierazi ziguten. Ezin dutela proiektu horretan pentsatu lehenetsuna faxismoa akabatzea denean. Lehenengo irabazi eta gero hitz egingo dutela etorkizunari buruz.

Herritarrek jasaten duten egoerari buruz berriz, arras gogorra dela argi utzi ziguten. Negua hurbiltzen ari den honetan herri aunitzetan urik nahiz elektrizitate gabe aurkitzen direla erran ziguten eta gainera, etengabeko bonbardaketen ondorioz eraikin gehienak egoera tamalgarrian daudela. Banda Ba-

sotti kantuan eta jana-ria eta edaria lagun gemituela agur erran eta berriz Moskuko bidea hartzeko ordua heldu zitzaigun.

Hori egin aitzinetik ordea, euskal herritar gisa beraien borrokan laguntza eskaintzeko zer egin genezakeen galdetu genien. Informazioa zabaltzeko eskatu ziguten. Han gertatzen ari den basakeriak lau haizetara zabaltzeko. Blokeo informatiboarekin hausteko. Adibide gisa, gu han geundela 400 gorpu inguru zeuden hilobi komun bat harrapatu zuten, organoak falta zituzten gorpu askorekin. Nonbait edo norbaitek argitaratu al du berri hau? 1936an Espainian bizitako gerra zibilaren antzeko zerbait gertatzen ari da momentu honean Ukrainan. Talde neonaziak Europar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuen babespean herri oso bat suntsitzen ari dira. Bidegabekeria hauen aitzinean ixilik gelditzen bagara eta bertze aldera begiratzen badugu, hein batean faxismo horren konplize izanen gara.

Donbass izanen da faxismoaren hilobi!!!
Ez dira pasako!!!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**Tel.: **948 63 54 58**Faxa: **948 63 54 57**

ttipi-ttapa

aldizkaria ebigia bidaltzea nahi baduzu,
deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baitan, Urdazubi eta Maloreka 34€
- Amerika eta Australia 124€
- Iparr Euskal Herria 59,50€
- Leitza 17€



Prentsatik bildutakoak



«Berrogei urte nitue-
nean beheraldi modu-
ko bat izan nuen.
Zaharregia nintzela
pentsatu nuen eta ez
zuela balio aizkoran
aurrera segitzeak, ezin
izango nielako arerioei
kontra egin. Baina
berrogeita lau urtere-
kin berriz ere gogor
prestatzen hasi nin-
tzen, nere burua ongi
ikusit nuen eta geroztik
hainbat marka hobetu
eta apostu irabazi
ditut».

Mikel MINDEGIA
Aizkolari ohia
ZAZPIKA 2014.10.03

«Sexu ugari dago
liburuan, baina bada
besterik ere.
Batzuetan pentsatu
izan dut sexurik gabe
ere funtzionatu ahal
izango zuela istorioak,
baina, bizitza bezala,
ez zen gauza bera
izanen».
«Oso une zail batean
hasi nuen eleberria.
Ez nintzen espetxean
baina ezta libre ere.
Idazten hasi eta libre
izanen nintzela eraba-
ki nuen».

Ernesto PRAT
Idazlea
ORTZADAR 2014.10.11

11 galdera labur

Nor dugu Jabier Legarreta?

Aranoko Xauxar baserrian jaioa, se-
nideetan zazpigarrena naiz. 13 ur-
terekin Hernanira ikastera etorri eta
bertan gelditu nintzen, orain jubi-
latua nago.

**Gipuzkoan bizi, baina aranoarra
beti aranoar?**

Bai bai. Astean behin hara joan be-
har izaten dut, bestela zerbait fal-
tan izaten dut. Lehen korrika han-
dik hona etortzen nintzen eta orain
korrika joaten naiz hemendik hara.

Zein afizio dituzu?

Argazkiak ateratzea gustatzen zait
eta baita bidaiatu eta eskulanak
egitea ere.

**Zer motatako lanak egiten ditu-
zu?**

Denetik baina gehienbat egurra-
rekin jostailuak eta egiten aritzen
naiz. Etxean badut ganbara tiki
bat eta hantxe aritzen naiz.

**Aranon ateratako ar-
gazki politena?**

Mallobaratzen,
Errekalkon atera-
takoren bat.

**Ateratako argaz-
kiekin zer egiten
duzu?**

Etxera joan eta
haiekin saltxan ari-
tzea gustatzen zait

eta herrian zerbaitetarako eskatzen
badizkidate ere gustura uzten diz-
kiet.

Aranoko txokorik gustukoena?

Izugarri gustura joaten naiz errota
ingurura. Orain eroria dago baina
han badago erreka bat, goroldioa-
rekin betetako soro bat eta kaska-
daren bat ere bai.

**Aranon antolatzen diren festeta-
tik zer gomendatuko zenuke?**

Santiotako feria asko gustatzen zait,
Aranoko produktuak bildu eta jen-
de asko izaten da.

Bisitatu duzun tokirik politena?

Puerto Rico.

Gustura bisitatuko zenukeen bat?

Extremadura aldea gus-
tatzen zait.

Amets bat?

Orain bizi naizen be-
zala amets batean be-
zela bizi naiz eta ho-
rrelaxe segitzea.



Jabier LEGARRETA → Hernanin bizi den aranoarra

ANTZUZELAI
ZINTARRIAK · ADOKINAK · ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Inongo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluzak, oma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak,
tximiniak, enfaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marmazkiak

sarobe
gocotegia olandegia

Pl. de Etegara 25 baxo
48700 Berriz (Bizkaia) | 948 63 08 99
www.sarobe.net

F. LANCHAS
Akutxaladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 | M: 607 406 781

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ERROTAR
harategia
Bertako
produktuak
Etegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0934) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

GIZARTEA

SUKALDARITZA → BIGARREN URTEZ SEGIDAN LORTU DU SARIA

Alex Mugicaren sukaldea urrez jantzi da Nafarroako Kaxuelaren Astean

Zurrukutunaren XXI. mendeko bertsoarekin irabazi du sari handia Iruñean

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere Iruñeko La Cocina de Álex Mugica jatetxeko Alex Mugica sukaldariak eta Arantxa Sagastibeltza sumillerrak lehenbiziko postua, Urrezko Kategoria saria lortu dute Iru-

ñeko Kaxuela eta Ardoaren XIII. Astean. Aurten, *Zurrukutuna... todos a una!* izeneko kaxuela aurkeztu dute: baratzuri zopa bat, bakailu tortilla fin batekin. Saria ahobatez eman zion epaimahaiaren ustez, "betiko plater bat berrinterpretatu dute, ukitu kurruxkatsua eta zaporeen armonia emanez". Alex Mugica leitzarra pozik dago bigarren urtez segidan irabazita: «Finalera ailegatzeara sari bat da, baina

irabaztea loteria!», dio. Baina saria ematerakokan, kaxuelak laguntzen duen ardoarekin lortzen duen konplizitatea ere saritu dute eta horretan beste leitzar batek du meritua, Arantxa Sagastibeltza sumillerrak. «Zapore potenteko erreze-ta denez, zaila izan zen ardoa aukeratzea», aipatu du Sagastibeltzak. Azkenean, Urabain ardo ondua aukeratu zuen, «hurrengo mokadurako ahoa frexkatzen duelako».



ARGAZKIA: JAVIER BERGASA/D.NOTICIAS
Leitzako Alex Mugica sukaldaria eta Arantxa Sagastibeltza sumillerra, pozik saritutako kaxuelarekin.

BORTZIRIAK

Zaletasuna mikronegozio bihurtzeko ikastaroa antolatu du Cedernak Alkaiagan

TTIPI-TTAPA

Langabezia dauden pertsonentzat *Nire zaletasuna mikronegozio bihurtu* izeneko ikastaroa antolatu du Cedernak, Lesakako Udalaren laguntzaz. Alkaiagan eginen da urriaren 30ean eta azaroaren 6, 13, 20 eta 27an, 09:30etik 12:30era. Beraz, hiruna orduko borts saio izanen dira, 15 ordu denera.

Edukiei dagokienez, *Sormena, Aitzindaritz eta ekintzailetarako trebetasunak* eta *Nire zaletasuna mikronegozio bihurtu*. *Zaletasunak eta hobbyak identifikatu*. *Horietatik abiatuta negozio-prototipoak sortu* ikasgaiak landuko dituzte. Informazioa eta izen ematea, 948 567010 edo sakana.admon@cederna.es.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bidasoko Zerbitzu Zentroan eskainiko da ikastaroa.



**KALITATE MAXIMOA
PREZIORIK HOBERENEAN**





AN ENERGÉTICOS LESAKA
Alkaiaga Industrialdea • Banarta, 18
(N 43° 16' 50" - W 1° 41' 40")

**GASOLIO A
prezio
ezin hobek**

ESKAINITZA BEREZIA!!
Irailan eta urrian 5 zentimo/litro deskontu zuzena bankuko kartelarekin ordaintzerakoan

ETA GARRAIOLARIANTZAT...
Kafea+pintxo edo ardoa+pintxo 2,50€ gasolio erosita
Eguneko menua 600 euro gasolio baino gehiago erosiz gero
Erosketa-tiketa aurkeztu behar da*

*Eskaintza baldinagarria irailaren 15etik urriaren 31 arte. Promozioa baldinagarria ez dagoen aldiak sartuta behar dira. Sargintza berriz gero. Sargintza berriz gero. Sargintza berriz gero. Sargintza berriz gero.

ERABILGARRI EGUNEKO 24 ORDU

DONEZTEBEKO FERIAK

Azaroaren 14an goizean tratuan eta arratsaldean herri kirol apustuan

San Martin ondoko ortzirealean, azaroaren 14an, udazkeneko ferietako giroak hartuko du herria. Urtetako ohiturari eutsiz, goizean goizetik izanen da zer ikusi eta erosia. Aziendek Merkatu Plaza ingurua beteko dute eta jakiak, nekazaritzako tresneria eta salmenta postuek jantziko dituzte Doneztebeko karrikak. Bertako eta kanpoko saltzaileek, Doneztebarrak merkatarik elkartekoek,



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDICOL

artisauek... jarritako postuetan pagotxaren bila ibili eta bidenabar, taloak edota gaztainak jateko aukera ere izanen dute bisitariek. Egun osoan zehar feriatik buelta bat emateko aukera izanen da, saltzaileek postuak irekita edukiko baitituzte egun osoan zehar.

Ganaduzaleen hitzordua

Urtero bezalaxe Merkatu Plaza ganaduzale eta abeltzainen biltoki izanen da. Garai batean, azienda sail ederrak biltzen ziren bertan. Gaur egun, abelburu gutxiago baina, kalitatea mantentzea lortu da.

DONEZTEBE ELIZAGIBELA KALEAN LAISTER ERAIKITZEKO



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com



ALTXUNEA ERRETEGIA
IREKITA
estofa eguerdik egunde egundera,
beste egunetan eta beste bezarotan

Kentzeja, 27 - ITUREN
T. 948 450 410



ONGI PASA FERIAK

Rosa Seminario, 15 - DONEZTEBE - 948 450 591 - 658 684 374

ONGI PASA FERIAK!!

Plater konbinatuak
Bokadilloak
Razioak
SASOIKO BARAZKIETAN ESPEZIALIZATUAK

Herriko ostalua

Santa Luzia Plaza, 5 - DONEZTEBE - T. 948 456 373



BENI Arpanketa Eroski/ctv

Nagusia, 17 - T. 948 450 589
Zazpigarutze, 8 - T. 948 456 152
DONEZTEBE

Le feriaz arratsaldean eta beste bezarotan irekia



IRRINTZA OSTATUA

LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!
ONGI PASA FERIAK!!

Merkatariek karrika, 28
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 826



ELORZA
"Etxeko elkarpena"

CARNICERÍA HARATEGIA

ZELIAKOENTZAKO ATAL BEREZIA
Sabidurak, harburgesak, enparatuak, kroketak...
ETXEKO PRODUKTUEN ATALA:
tripakiak, txun-beltzak, bistomak

ENKARGUAK ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
ONGI PASA FERIAK!!
Ciri - 634 494 856 - T. 948 450 040
Merkatarien karrika, 12 - DONEZTEBE



ARGAZKIAK: JUAN CARLOS IRIGOIEN

Herri kirolzaleen gozagarri

Feria eguneko bertze ezinbertzeko osagaia bihurtu da herri kirol saioa. Urteak daratzate ferietako arratsaldean herri kirol jaialdia antolatzen eta eskualdeko zein kanpoko bisitari ugari elkartzen dira Bear Zana pilotalekuan. Arratsaldeko 5:30etik aitzinera hasiko da. 15 euro ordaindu beharko dira sarreretatik. Batzuetan jaialdi arrunta izaten da baina bertze batzuetan txapelketaren bat ere jokoan izaten da. Aurten, Nafarroako II. Mailako Aizkora txapelketa jokatu da.

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala

Bortz aizkolari aurrez aurre arituko dira garaipena eskuratzeko lehian. Tartean eskualdeko bi ordezkari izanen dira, **Mieltxo Mindegia** zubietarra eta **Asier Pellejero** aresoarra. Hauekin batera **Iker Vicente** (Otsagi), **Aitor Senosiain** (Olague), eta **Goizeder Belzak** (Etxarri-Aranatz) arituko dira lehian. Egin beharreko lanak hauek izanen dira: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat. Lehenengo bi sailkatuak mailaz igoko dira.



Inaxio Perurena harriarekin

Aizkolarien ondotik Inaxio Perurenak harriarsozte erakustaldia eskainiko du. Hasteko, 200 kilokoari bi altxaldi, 250 kilokoari altxaldi bat eta 270 kilokoari altxaldi bat. Segidan, 200 kilokoari altxaldi bat eginen dio esku bakarrekin eta bukatzeko 111 kiloko bolarekin saioa eskainiko du.



2013an Nafarroako II. Mailako Arpana txapelketa jokatu zen. Argazkian, irabazleak lanean.

NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Hobera baina... lantzeko aunitz oraindik

Duela bi urte hartu zuen Nafarroako herri kirol federazioko lehendakari kargua Xabier Urrutia arraioztarrak eta dezente gehiago daramatza herri kirol-letan lehian. Eta bien artean aitortu digu nahiago duela **«plazako lehia lehendakaritzakoa baino»**. Pasa den urtean anaiarekin batera lortu zuen, Doneztebeko jaialdian II. mailako Arpana Txapelketako txapela eta baita lehen mailan aritzeko txartela ere.

Hogeita hirugarren edizioa beteko du aurtengoan Doneztebeko ferietako herri kirol jaialdiak. Bertan, Nafarroako zenbait txapelketaren finalak jokatu izan dira eta aurtén, Nafarroako Aizkorako II. mailako finalaz gozatzeko aukera izanen dute zaleek. Emaitzari dagokionez **«ez dut sorpresa handiegirik espero, aunitz aldatu beharko lukete gauzek»** aipatu digu. Iker Vicente da faborito nagusia, aurtengo proba guztiak irabazita eta aitortu digu **«aurretik doa, nagusitasuna erakutsiz eta honi behatza sartzea ez da erraza izanen. Iker Vicente lan motxean oso ongi aritzen da, lan luzean Goñi errazago arituko da»**.

Nafarroan herri kirolen egoera zein den solasten hasita, **«gauza batzuetan hobera egin du, adibidez emakumeen presentzia handitu da eta maila altuan ari dira lehiatzen. Baina bertze arlo batzuetan berriz, gibeletik ez da heldu deus»** aipatu digu kezka apur batekin. Izan ere, aizkolariak plazan ikustea ez da arraroa baina **«txingak eraman edo orga jokoetan eta ingudearekin aritzeko jendez arrunt eskas gelditzen ari gara»**. Horren zergatiak galdetuta, bere ustez gazteek **«ez dute horrelako indar esfortzurik egin nahi»**. Egoerari buelta emateko, exijentzia maila zertxobait apaltzea proposatzen dute batzuk **«adibidez orga jokoan, orga arinagoa erabiltzea, 200 kilokoaren orde. Baina horrek benetan mesede egingen lieke herri kirolei?»**. Xabierren ustez, **«herri kirolek berezkoa duten xarma galtzeko arriskua dago. Euskal herrian beti ikusi izan dira esfortzu handiko lanak eta jendea horretara lotu izan da. Erakarren gaitasuna galdu dezakete kirol hauek orain aldaketa horiek gauzatzen badira»**.

Xabier URRUTIA | Nafarroako Herri Kirol Federazioko Lehendakaria

Bada aldatu den bertze egoera bat ere **«herri kirolei indarra apustuek eman izan diete. Apostuek, plazak bete izan dituzte eta horrela herri kirolek plazetan presentzia lortzen zuten. Orain ordea, diru kopuruak bajatu dira eta dena erdi legal egin behar da, horrek gutxitu egin du apostuen indarra»**. Ez hori bakarrik, kirolariak prestatzeko ere garai batean baino zailtasun gehiago izaten ditzuztela gaineratu digu **«lehen herri gizonak edo mendi gizonak izaten ziren herri kirol-letan aritzen zirenak eta bizpahiru hilabetez, azaro eta abendu artean lan gutxiago izaten zuten, prestatzeko aukera izaten zuten»**. Orain berriz, **«fabrikan lan eginda eta jendeak lanetik atera ondoren entrenatu behar izaten du. Nibela jeistea ia normala da. Prestatzeko makina hobeak eduki, baina denbora falta izaten da, ezin zarelako entrenamenduan bakarrik zentratu»**.



ARGAZKIA: JUAN CARLOS IRIGOIEN
Xabier Urrutia arpanlaria eta Nafarroako Herri Kirol Federazioko Lehendakaria da.

Arozena
ostatu · jatetxea
Ongi pasa feriak!
T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 - Doneztebe

goldea
Lalarna s.r.l.
Ongi pasa feriak!
Tel. Fax: 948 450 443
e-mail: goldealalarna@gmail.com
Pol. Industrial Auzoa, 1
48100 Doneztebe (Nafarroa)

Sampi Aragón, S.A.
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Mekanika | Elektrotroka | Txapa | Pintura
948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@telefonica.net

EROSKI city **BENI**
Ongi pasa feriak!!
T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8 - DONEZTEBE

FERIETAN ZURE GOSARI ETA BAZKARIAK ARIZTIGAIN kanping-jatetxean!!
OSPAKIZUNETARAKO MENU BEREZIAK
(Laneroa, baina, familia bazkariak...)
SUNBILLA | 948 450 540 | www.campingariztigain.com

Clinica Dental IRURITA RUBIO
ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

- Rx. Panoramikoa
- Periodontzia
- Odontopediatria
- Kirurgia
- Endodontzia
- PADI
- (Haurren hartzak zuzentzeko programa)
- Protesiak
- Hartz-zuritzea

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19 esk.
948 450 267
LEITZA
Manuel Lasarte, 7esk.
948 610 713

ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta aitortpenak
- BEZ aitortpenak
- Sozietate zergak
- Zure negozioaren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatean aholkularitza
- Enpresen erakitzea
- Kontabilitatearen eramatea
- Administrazio zerbitzuak
- Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena

BERTZE ZERBITZUAK

- Jubilazioen eramatea
- Ezgaitasunen eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru - laguntzak
- Negozioen bideragarritasunen eramatea

Ongi pasa feriak!

ZERGALAN
aholkularitza
www.zergalan.es
info@zergalan.es

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

TABERNA ZAHARRA



UDAZKEN-NEGUKO MODA

Gizon eta emakumeendako arropa-denda

Gortinak eta etxerako arropak

Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007

EDERKI tailerra

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA



'Latigillo' hidraulikoaren moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa feriak!



Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525

KONTXA Gasolindegia



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- TABAKO SALMENTA
- TELEFONO MUGIKORREN BIRKARGA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK
- DUTXA ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

SUPERMERKATUKO PREZIOAK DITUEN DENDA
ESKATU DOHAINIK GURE DESKONTU TXARTELA, A GASOLIOA ETA SP 95 PREZIO EZIN HOBEAN!

GASOLIOA ETXERA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA
- ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
- PREZIO LEHIAKORRA

TASKA Simón TABERNA - KAFETEGIA

- * MENUAK
- * PLATER KONBINATUAK
- * OGI TARTEKOAK
- * PINTXOAK

~ ERAMATEKO JANARIAK ~



Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

ERREKA KIROL ELKARTEA

Kirolariak duten onena emateko prest!

Afizio batek batzen ditu Errekako kideak: kirolerako grinak. Dantzan, eskubaloian, triatloian, korrika, pilotan edo judoan, neska zein mutil; haur, gazte edo heldu... kirol eskaintza zabala dute aukeran.

Batzuk harat eta honat, lasterketetan parte hartuz eman dute uda. Bertzeak urri hasieran hasi dira entrenamenduetan eta datozen asteetan hasiko dira lanean falta diren taldeak. Dantza taldea azaroaren 7an hasiko da lanean, 20:30ean egin dute hitzordua gimnasioan eta gogorarazi dute emakume zein gizonezkoei zuzendua dagoela taldea. Azaroaren 8an, aurkeztuko dituzte Errekako Eskubaloi taldeak. Bederatzi talde osatu dituzte denera eta zazpi ariko dira dagokien ligatan lehiatzen: seniorrak, kadete mutiak, kadete neskak, infantil neskak, bi alebin mixto eta alebin neskak lehiatuz. Aurrebenjaminek eta senior neskek berriz, entrenatu baina baina ez dute oraingoz Liga jokatu. 17:30ean Seniorrek Anaitazarraren kontra jokatu dute eta akitzean eginen dute aurkezpena.

Emakumeak korrika gogoz

Erreka Kirol Elkartearen azken urteetako berrikuntza nagusia Emakume Korrikalarien Taldea osatzea izan da. Duela urte bete sortu zen taldea eta bigarren denboraldiari ekin diote iraillean. 20 emakume inguru daude egun taldean eta bi entrenatzaile izanen dituzte saio bakoitzean: Iñigo Arregi (finkoa) eta Alfredo Telletxea eta Jokin Apezetxea (bi astez behin txandaka). Gainera iaz baino hilabete bat gehiago entrenatuko dute, iraillean hasi baitira urriari hasi ordez. Horretaz gain, ordaindu beharreko kuota ere merkeagoa izanen da: 8 euro, 12 euro ordaindu beharrean. Aurten bezalaxe, urtean zehar froga desberdinetan parte hartzeko asmoa

dute: Doneztebeko San Silbestrea, Lilatoia, Doneztebeko Krosa... eta taldeko izena eta irudia daraman entrenatzeko gehigarriren bat ere egiteko asmoa dute. Elkarteko kideek eskualdeko emakumeak animatu nahi dituzte, «talde irekia da eta taldean korrika aritzea gustuko duten emakume guztiei luzatzen diegu etorri eta kirola eginez ongi pasatzeko gonbidapena».



Mailpostabuzoneos
Eskaintu Inprimitu Banatu

Bisita txartelak, egutegiak, kartelak, fakturak, ...
inprimitzen ditugu.

Kartelak, egutegiak, folietoak, aldizkariak, ...
banatzen ditugu.

Tel. 686 747 713 * NARBARTE
www.mailpostabuzoneos.com

Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!

608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

**UDAZKEN HONETAN
ESKAINTZAK
GAMA OSOAN**

MOTOTERRAK 199€
HERRAI MOTEKORAK 299€
AIRE-MAKINAK 199€
HIDROLABITZARREAK 129€
MOTOAITZURRAK 549€

JOSÉ LUIS SAN MIGUEL
Merkatu kaerrika, 11 DONEZTEBE
T/F: 948 450 711

Viking STIHL

ONGI PASA FERIAK

Merkatu, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta
Txapa eta pintura

ongi pasa feriak!!!

Leitzako bidea • DONEZTEBE | T. 948 450 333

BERA

KULTURA → HIRU EMANALDI IZANEN DITU

Kafe-Antzerki Zikloa abiatuko da azaroaren 7an

Olatz Pagaldaik 'Erdaldun berrien kluba' eskainiko du Errekalden

TTIPI-TTAPA

Kafe Antzerki Zikloa antolatuta du aurten ere Euskara Batzordeak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Kultur Batzordearen laguntzarekin. Azaroaren 7an, 22:00etan *Erdaldun berrien kluba* antzezlan eskainiko du Olatz Pagaldaik Errekalden. Azaroaren 14an, 22:00etan Gilkitxaro taldeak *Urak tiki dire* antzezlan aurkeztuko du Katakun eta azaroaren 21ean, 22:00etan Ramon Agirre eta Inazio Tolosak *Kokakola eta barea* antzezlan eskainiko dute Auzoan.

Udazken Kantu afaria

Anjel Mariezkurrenak eta Mendiko sagardotegiak antolatuta, Udazken kantu afaria egingen da azaroaren 8an, 21:00etan Ibardingo Mendiko sagardotegian. Ekitaldian, Hondarribiako Ama Guadalu-

pe trainerako eskualdeko arraunlariak ere omenduko dituzte, A-goitz Irazoki lesakarra eta Iker Marizkurrena sunbildarra, hain zuzen. Afalondoan, kantuz ariko dira Bankako Menditarrak, Aitor Ibarra, Frantzisko eta Anjel Mariezkurrena. Txartelak 45 eurotan (afaria eta liburua) salgai daude Mendiko sagardotegian eta 948 630302 edo 670 365011 telefonoan.

Baratzegintza biodinamikoa

Baratzegintza Biodinamikoa ikastaroa eskainiko da azaroaren 7, 8 eta 9an, Kaxerna gaztetxean, Kistiñe Berraren eskutik.

Azaroaren 7an, ortziralarekin, 19:00etatik 21:00etara Zer da biodinamika? Solasaldia eskaini ondotik afaria, eta lotarako aukera izanen da.

Azaroaren 8an, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Biodinamikaren azalpen teorikoa egingen da. 14:00etan bazkaria. 16:00etatik 20:00etara baratzera ateraldia, prestaketa biodinamikoak egin eta ematera. 21:00etan afaria, eta ondotik, kantua, musika...



UTZITAKO ARGAZKIA

Letoniako abesbatza kantari azaroaren 1ean

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Berako Abesbatzak Tolosako Nazioarteko Lehiaketan parte hartze duen abesbatzetako bat ekarriko du San Esteban elizan kantatzera. Zehazki, Letoniako Riga hiriburuko Maska Yout Choir abesbatza izanen da kantuan azaroaren 1ean, larunbatean 20:00etan. Berako Abesbatzak gogorarazi nahi du abestea gogoko duten guzientzat ateak zabalik dituela. Heldu den urtea lasaixeago hartu nahi dute, erreperitorio zabala errepasatzeko eta abesti berriren bat ikasteko. Halere, bertze urte batez, Queimararen Kofradiako ekitaldietan parte hartuko du abesbatzak Donostiako Udaletxean abenduaren 7an.

JULIO CARO BAROJAREN MENDEURRENA

'Don Julioren arrastoa' erakusketa zabaldu dute Kultur Etxean azaroaren 23ra bitarte

TTIPI-TTAPA

Julio Caro Barojaren mendeurreneko ekitaldien baitan, erakusketa inauguratu zen urriaren 24an, ortziralarekin Kultur Etxean. "Don Julioren arrastoa" izenburupean, Julio Caro Barojaren mundua haurrei erakutsia agertuko du erakusketak, sorginak protagonista dituena. Julio Caro Barojak berak margotutako hainbat koadro ere ikusi ahal izanen dira, eta Berako ikastetxeetako ikasleek egingo dako marrazkiak bilduko dira bertan, ikus-entzunezko batekin batera. Erakusketa hau azaroaren 23ra

arte bisitatu ahal izanen da, astelehenean ortziralera 17:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bertze aldetik, Lurraren Egunaren ekitaldien baitan, Caro Barojaren inguruko argazki erakusketa ere prestatu zuen Rosa Errandoneak.

Azaroaren 9an, beratarrek antropologoarekin egiten zituzten bidaiak oinarri dituen Emaizta taldearen *Los viajes de Don Julio* antzezlan ikusgai izanen da Kultur Etxean, 18:30ean. Sarrera 3 euro izanen da.

Azaroaren 9an, igandean, 10:00etatik 14:00etara biodinami-

karen aplikazioa baratzean, fruitu arboletan, ogia egiterakoan, lan

garrantzitsuetan... ikasiko dute. 14:00etan bazkaria eta agurra.

Arturo
Atropak | Eberako osagarriak | Lentzeria | Mertzzeria
Atzalea, 20 BERA T. 948 630 136

elika
Dietetika - elikadura
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Izlea, 6 behea 31780 BERA
948 631 283 645 708 512
elikahera@gmail.com

Xirgill
Altoa 1 BISA
Tlfnoa 948 631 418

ELKARTEAK → AZAROAREN 15A BITARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK

75. urteurrenerako logotipo lehiaketa deitu du Beti Gaztek

Lehen saria 200 eurokoa izanen da eta bigarrena eta hirugarrena 50na eurokoak

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak 2015ean hirutan hogeita hamabortz urte beteiko dituela eta, urtemuga hori ospatzeko garatuko diren ekitaldiak eta jarduerak identifikatzeko logotipoaren diseinua aukeratzeko lehiaketa deitu du. Lanak elkartearen egoitzan aurkezteko epea azaroaren 15eko 13:00ak arte irekiko da.

Lanak paperean edo euskarri digitalean aurkezten ahal dira, beti ere, DIN A4 neurrian. Digitalean, JPGn edo bektorialean aurkez daitezke, eta bai koloretan bai zuri-beltzean erabili ahal izanen diren logotipoak lehenetsiko dira. Gaia nahiz koloreak libre dira, baina elkartearen koloreak erabiltzea (berdea, zuria, horia) baloratuko da. Lehiakide bakoitzak nahi bertze lan aurkez ditzake.

Diseinu guztiak hartu eta Beti Gazte elkartearen webgunean (www.betigazte.net) emanen dira argitara eta



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

Beti Gazteko heldu, jubenil eta kadeteak galdu gabe

Lerro hauek idazterakoan, Beti Gazteko hiru talde nagusien artean 16 partida jokatu dituzte sasoi honetan eta alerik ere ez dute galdu. Gipuzkoako Ohorezko mailan jokatzeko helduek (argazkian ageri direnak) bortz lehenbizikoak berdindu ondotik seigarrenean lortu zuten estreineko garaipena. Ohorezko Mailako jubenilek bi partida berdindu eta hiru irabazi egin dituzte eta Gipuzkoako lehen mailako kadeteek jokaturako bortzak irabazi (azkenekoan, 0-7 irabazi zioten Gure Txokoari derbian). Gipuzkoako ligan hasiak direnak emakumezkoak dira. Hauek partida guztiak galdu dituzte baina, aspaldiko partez, berriz ere taldea zelairatzea da helburua.

bazkideek abenduaren 1a arte botoa eman ahal izanen dute aukeratzeko zein diren hiru diseinurik hoberenak. Aukeraturako hiru hoberen artean, Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du zein den irabazlea. Saritutako hiru lanak Beti Gazteren esku geldituko dira. Gainerakoak, erakusketa-aldia bukatu ondotik itzuliko dira. Lehenbiziko saria 200 eurokoa izanen da eta bigarren eta hirugarren

sarirako, bakoitzak 50 euroko akzesita izanen du.

Aukeratzeko den logoa Beti Gazte erabiliko du 75. urteurren ospatzeko burutuko di-

ren jardueretan edo egoeki iruditzen zaion bertze edozeinetan. Arropen diseinuetan, karteldegian eta bertze euskarrietan ere erabili ahal izanen du.



Ba al zenekien

Independentzia Eguna azaroaren 15ean ospatuko dela herrian. Goizetik hasi eta egun guztian, hitzaldiak, mural margoketak, musika, bazkaria... izanen dira, eta Euskal Herri osoko gazteak biltzen saiatuko dira. Gauean ere segituko du egitarauak, ekitaldia eta kontzertuak egingen baitira.

FLASH

Kirol, kultur eta gizarte elkarteak dirulaguntza

2015erako Kirol, Gizarte eta Kultur elkarteentzako dirulaguntza deialdia zabaldu du Udalak. Eskerak aurkezteko epea azaroaren 21ean bukatuko da. Bertzalde, udalpolitik orotarazi dutenez, 2014ko dirulaguntzen justifikazio guztiak abenduaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira. Bertzela, dirulaguntza galduko da.

Atarrabiako Abesbatza Harriondoan

Atarrabiako Abesbatzak emanaldia eskainiko du azaroaren 2an, igande eguerdiko 12:30ean Harriondoan Kultur Etxeko Txokobiko aretoan.

Irain ikastetxearen fatxadako obrak

Irain eskolako fatxada eraberritzeko lanak Matias Mitxelena erakuntza enpresak egingen ditu, 49.844,74 euroren truke. Abenduaren 2rako bukatu beharko du lana.

Bertso Zikloaren azken txanpa

Azaroaren 1ean Zahar Etxeko saioa eskainiko dute bertso eskolako kideek 17:00etan eta 23:00etan Lesaka eta lurretaren arteko desafioa Haizeguan. Azaroaren 8an gaztainta jatea Basurden.

IRU BIDE
Energia Auzia

Berriak, 3. Solanketa
Tel: 948 637 127

SOBEKO

Plaza Auzia - LESAKA
Telefono: 948 637 826

BERA

Zure laguna klase guztetako inaktibitate (xomorro, zinoerre, armiarma, kakaxa...) eta errotel xagutzar garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zelaia, 42 A • BERA

Lehenbiziko Berrantolak Martxoaren 10an 10:00etan Puzen Maialdean

Kaligoria

Berriak plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 427 514

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 19AN

Eguraldi ezin hobearekin egin zen Usategietako Igandea

Jende mugimendu handia sumatu zen

Iruñe eta Itsaso

Urriaren 19an Usategietako igandea ospatu zen. Egun osoan jende andana ibili zen Lizaieta eta Usategietan primerako eguraldia zegoela aprobetxatuz. Hego haizea zenez, uso gutti harrapatu zituzten saretan eta denetara, igande hau arte, 16 dozena dituzte harrapatuak. Arratsalde-ilunabarrean ere jende mugimendu handia sumatu zen herrian eta

Gaubela taldearen erromeriarekin akabera eman zitzaion egunari.


Udazkeneko Kultur egunak

Euskara batzordeak antolatuta, kultur egunen barrenean, urriaren 18an *Kokakola eta barea* antzezlanak ikusgai izan zen kultur etxean, Ramon Agirre eta Inazio Tolosaren eskutik. Ondotik plazan Beirataldea, pintxoak, gaztainak eta sagardoa izan ziren. Urriaren 24an, kultur egunen barruan, gaztetxoei zuzendutako *Buatxabal* antzerki proiektioa izan zen kultur etxean.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Jende aunitz hurbildu zen Usategietako Igandean.



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

'Kokakola eta barea' Kultur Etxean...

Giro onean joan zen III. Gazte eguna

Urriaren 11ean ospatu zen III. Gazte eguna. Eguraldi ederra lagun giro onean pasa zuten eguna herriko gazteek. Arratsean Kalera taldea, En Tol Sarmiento, Ingoaldeu eta DJ Mattin Maia-ren kontzertuek eman zioten akabera bestari.

15 ANBANDONIA, S.A.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidaxoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osatun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- INGURUETAKO FOTOKOPIAK
- USBUK EGINDAKO IMPRIMATUTAKO
- ESKAKERAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAREN MATERIALA
- BULGONAKO MATERIALA
- EGURKARAK, ALDEKARRAK

ZUBIONDO
Jatetxea
anagardotegia jatetxea
Alasta karrrika
BERA NAFARROA
TEL. 948 634 474

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

USOA
Nekazari kooperatiba
Tel. eta Faxe: 948 63 52 14 • ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Organiak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalefaktzioa eta ibilgailuendako gasolioa

IGANTZI

GIZARTEA → AZAROAREN 29RAKO

Milagron kapea eta egunpasa antolatu dute herriko gazteek

Azaroaren 20ra arte apuntatu daiteke La Villa jatetxean

TTIPI-TTAPA

Herriko gazteek Milagrora egunpasa antolatu dute azaroaren 29rako, kapeaz eta giro ederraz gozatzeko asmoarekin. 09:00etan abiatuko da autobusa aparkalekutik eta Milagron, kapeako lekura ailegatu ondotik bertan ederki gosalduko dute (xingarra, txistorra, gazta...) eta ondotik kapea izanen dute bazkaltzeko ordura arte. Bazkariko menua ere aski berezia izanen dute: entsalada keztatua eta ahuntz gazta roiloa, iberiari deliziak ogi tumakarekin, etxeko kroke-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gazteak bestetako herri kirol saioan. Orain bertze "kirol" batean aritzeko aukera dute.

tak, onddo nahaskia, bakailoarekin betetako piperrak, zezen buzana gisaduan edo bildots errea (honek 4 euroko gehigarria dauka), dena ardo nafarrarekin bustia. Postrerako, teilak izozki eta txokolata

beroarekin eta kafea, izanen dute. Bazkaldoan, beharbada "tore-ro" gehiago animatuko da kapearako eta diskoteka ere izanen dute, bueltatzeko ordura arte. 20:00etan aterako dira Milagrotik herrira.

Egunpasako prezioa 50 eurokoa da, gosaria, bazkaria eta kapea barne. Azaroaren 20ra bitarte apuntatzen ahal da La Villa jatetxean eta ize-na emateko momentuan 20 euro ordainduko dira fidantza modura.

FLASH

Hilerria handitzeko lanak

Lesakako Mikel Ubiria eraikuntza enpresa hasia da hilerriaren handitze lanean. 85.532 euroko aurrekontua aurkeztu zuen (BEZ barne) eta azaro bukaerarako bukatu beharko du lana. Gibelaldeko belagira zabalduko da hilerria eta nitxo gehiago eginen dira.

Ttikitto ludoteka azaroan hasiko da

Hirugarren urtez, Ttikitto ludotekan hasteko aukera izanen dute urte eta erdi eta zazpi urte arteko herriko haurrek. Azaroaren erditsutik hasi eta Aste Santura bitarte eskainiko dute zerbitzua Olaia Matxikotek eta Naroa Loinazek, astelehen eta ortzegunetan 16:00etatik 18:30era Ziberrean. Zortzi haurrek eman dute ize-na gaugerero, baina oraindik nahi duen guzira apuntatu daiteke.

Javier Manterola
 Tekniko instalatzailea
 Iturgintza • gasa
 kalefakzioa
 Tfnoa: 629449602 • BERA

Alberto RETEGI
 abokatu
 abokatu
 Tfno: 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

zalain
 JATEETxea - RESTAURANTE
 Zalain Auzoa z/g
 31780 Bera
 t. 948 631 106
www.zalainjateetxea.com

HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOA
Fernando Orset Mauleon arkitektura
 Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

ERREKALDE
 PLATER KONTAKTUEK
 PARTIDAK
 KONTAKTUEK
 TFNOA: 948 630 259 • BERA

LIZUN
 GAZTANDEGIA
 Sunbilla - Tel: 948 450 862

ARANTZA

KULTURA → KULTUR EGUNEN BARNE

Erramun Martikorena eta Beñat Mitxelenarekin kantaldia azaroaren 8an

Egitarau zabala prestatu du Euskara Batzordeak

Nerea ALTZURI

Ekitaldi zenbait aitzineko alean zehaztu baldin bagenituen ere, azaroaren 8an, 19:30ean, Erramun Martikorena kantariaren eta Beñat Mitxelena herriko akordeoilariaren eskutik kantaldia izanen da udazkeneko kantaldia borobiltzeko. Azken aldaketarik ez bada, eskolako gimnasioan izanen da.

Erramun azken boladan hainbat herritan kantaldiak eskaintzen dabil, bazkalondo eta ilunabarretan. Beñatek ere urte mordoska daramazki eskusoinuarekin eta herrietako inauteri edo bertzelako ospakizunetan akordeoia jotzen du. Iaz, Urrozko Artisau Egunean, bazkalondoa Martikorenak eskainitako kantaldian bera izan zen akordeoilari. Oraingo honetan ere, seguru saio ederra egingen dutela.

KULTUR EGUN GEHIAGO

Ortziral honetan, 17:00etan, 3 eta 11 urteko haurrentzat ipuin kontalaria eta txokolatada izanen dira Baskulan. 19:30ean, berriz, heteroarauei buruzko *Arrakala* dokumentala ikusgai izanen da eta eztabaidarekin akautuko dute.

Azaroaren 1ean, Ekaitza Elkarteak antolatuta, XIX. Baserritarren Eguna izanen da. 10:00etatik aitzinera, plazan eta frontoian, herritarrek dituzten baserriko produktu, nekazal tresna, eskulan eta aziende osatutako merkatu edo azoka izanen da. Aldi honetan ere,

gazta eta ahari lehiaketak izanen dira eta bietan sariak izanen dira. Aurten, estreinako aldiz, Pelle Tiki Haur Eskolaren bigarren eskuko jostailuen azoka izanen da. Edari eta pintxoak eskaintzeko ostalua ere paratuko dute.

Bezperan nahiz egun berean, postuak muntatu eta biltzeko lana izaten da. Hortaz, borondatea eta aukera dutenak ortziral honetan 18:00etan postuak paratzeko bilduko dira. Larunbatean, berriz, lagundu nahi dutenak 18:00etan postuak bildu eta frontoia garbitzera etor daitezke.

Azaroaren 2an, Ekaitza Elkartean, mus eta partxis txapelketak izanen dira 17:30ean hasita. Sari ederrak jokoan!

Ba al zenekien...

ETB1eko Herri txiki, infernu handi izeneko saio berria grabatzen ibili direla herrian? Hamabortz bat aranztarrekin elkarriketak egin dituzte eta ilbeltzetik aitzinera emitituko dute telebistan. Hala ere, hori baino lehen, herrian aurkezpena egingen dute eta aurkezpen hori ortzegun honetan, urriak 30, izanen da 20:00etan frontoian. Publiko gisa edozein joan daiteke ikustera.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere gisa aunitzetako postuak paratuko dituzte herritarrek Baserritarren Egunean.

Paris 365 Fundazioa

Parrokiatik behartsuei laguntzeko bide berri baten inguruko informazioa ailegatu zaigu. Paris 365 Fundazioa Iruñeko jendartean baztertuak sentitzen diren behartsuen alde lan handia egiten ari da eta erakunde honekin elkarlana hasi da. Helburua fundazioari bere zereginen laguntzea da, Arantza, Igantzi nahiz Bortzirietako herrietan lan dinamika bat sortuz. Xehetasun gehiago 21. orrialdean.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

GIZARTEA

ELKARTASUNA → BEHARTSUENTZAKO LAGUNTZA

Paris 365 Fundazioarekin elkarlanean hasi dira Arantza eta Igantziko Parrokiak

Nahi duten guztiek kolabora dezakete

TTIPI-TTAPA

Behartsuei laguntza eskainiz, Arantza eta Igantziko Parrokiak zortzi urtez kolaboratu dute Behar-Bidasoa erakundearekin: janari-bilketak eginez, erabilitako arropak emanaz, diruz lagunduz... Azken bi urteotan, arropa Iruñeko Gurutze Gorrira eraman dute eta orain, berriz, Paris 365 Gizakia Herritarrekin hasi dira elkarlanean, Iruñeko gizarteaz bartzertuak diren behartsuei laguntzen dien fundazioarekin.

Erakunde honek egunero 70 laguni hiru otordu euro baten truke ematen dizkie, hamabortzera janari-saskiak banatzen ditu, aterperik ez dutenei salda beroa eta laguntza eskaini, laguntza juridikoa etorkinei, langabezia daudenei baliabideak, kultur arloan liburutegia, prentsa, ordenagailua eta internet, jokoak eta deskantsatzeko guneak eskaintzen ditu, haurrentzako prestakuntzarako programa... Etxerik gabe gelditzen direnei momentuko laguntza emateko bortz etxebizitza ere baditu eta lana lortzeko prestakuntza tailerra ere eskaintzen du.

Fundazioarekin elkarlanean Arantza eta Igantziko Parrokiak hasi badira ere, kolaboratu nahi duen bertze herrietako edozeinek ere parte har dezake, Iruñean edo bakoitzak bere herrian izena emanaz. Gisa berean, etxetresna tikiak, arropak, oinetakoak, poltsak, liburuak eta haurrentzako jolasak eman daitezke, Fundazioak dendan sal ditzan. Horiek eman nahi dituenak larunbatetan 10:00etatik 12:00etara Arantzan Puri Leizak Osinã karrikan duen garajera eraman ditzake, edo Igantzin Parrokiko Zentrora. Nahiago duenak 948 634030ra deitu eta etxetik pasako zaizkio bila. Diru-laguntza emateko aukera ere badago: La Caixan ES362100217385020053 2487 zenbakian eta Rural Kutxan ES32 3008 0073 1130 20832923 zenbakian. Urtea bukatzean, laguntza eman duenari errezibo bat emanen zaio errenta aitopenean dagokion deskontua izan dezan eta horretarako garrantzitsua izanen da diru-sarrerara egiterakoan, izena, bi abizenak eta telefono zenbakia bankuan garbi jakinaraztea.

Aipatutakoez gain, abenduaren 13an, janari bilketa egingen dute Arantzan eta Igantzin Paris 365 Fundazioari laguntzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Arantza eta Igantziko boluntarioak.

Udazken 2014 kantu afaria

AZAROAK 8 - 21:00etan
IBARDIN
MENDIKO SAGARDOTEGIAN

45€ AFARIA + LIBURUA

Omenaldia

- AGOITZ IRAZOKI -
- IKER MARIZKURRENA -

Ama Guadalupe Hondarribiko Inaiteko
eskualdeko arraunlariak

AFALONDOAN KANTUZ:

- ★ BANKAKO MENDITARRAK ★
- ★ AITOR IBARRA ★
- ★ FRANTZISKO ★
- ★ ANJEL MARIEZKURRENA ★

TXARTELAK SALGAI:

- Mendiko Sagardotegian ○—
- 948 630 302 telefonoan ○—
- 670 365 011 telefonoan ○—

ANTOLATZAILAK:
ANJEL MARIEZKURRENA | MENDIKO SAGARDOTEGIA

SUNBILLA

GIZARTEA → IKASTURTEKO LEHEN BILERA

Guraso Elkarteko kideen aldaketak urrian eginen dituzte

Orain arte
otsailean
sartzen ziren
kide berriak
baina aldatzea
erabaki dute
urriaren 15eko
bileran


Maider PETRIRENA

Ikasturteko hasierako bilera egin zuen Guraso Elkarteak urriaren 15ean. Aipatzeko hainbat gai izan zituzten. Aldaketa tiki bat proposatu zuten orain arte juntan daudenek eta onartutzat eman zen bileran. Beraz, hemendik aurrera Guraso Elkarteko kide aldaketak urriko hilabetean egingen dira eta ez orain arte bezala otsailean. Honela, momentu honetan eta otsailera bitarte zazpi kide izanen dira guraso elkarteko juntan: Silvia Fernandez, Nerea Petrarena, Marisol Sanchez, Lourdes Indakoetxea, Mainer Petrarena, eta sartu diren bi kide bolondres Rakel Urtxegi eta Koro Zelaieta. 2015ko otsailean, bi

urte pasa ondoren, Lourdes eta Mainerrek uzteko txanda ailegatu ko da. Ondorioz bortz kide geldituko dira, urriar bitarte. Urrian bertze hiru kide berri sartuko dira eta zortzi egonen dira 2016ko otsailera bitarte. Orduan Nerea, Marisol eta Silvia aterako dira eta behin betiko bortz kide izanen dira.

Natur argazkiak kanpinean

Iñaki Atxa argazkilari elizondarraren *Paradisus basatia, oihanetan barrena basabizitzaren aztarnen atzetik* natur argazki erakusketa ikusgai izanen da Arizti gain kanpinean azaroaren 1etik abenduaren 15era.



ARGAZKIA: INAKI ATXA
Erakusketaren kartela.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herrera anaiek lanean bikain segitzen dute

Urriaren 12an Diario de Navarra Opendeko 3. karrera izan zuten Eneko eta



Koldo Herrera anaiek Ororbian. Enekok 7. postua lortu zuen, Koldok berriz 2. na. Hurrengo astean, urriaren 18an Peraltan izan zuten karrera. Hemen biek podiuma lortu zuten. Enekok 3. postua eta Koldok berriz ere 2. na. Argazkietan, Eneko Ororbiako karreran eta Peraltako podiumean. Zuzenketa tiki bat aurreko TTPI-TTAPAN jarritakoarekin. Urriaren 5ean berriz ere Logroñon jokatu zela jarri genuen, baina urriaren 5ean Oteiza de la Solanan izan zen karrera.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea Donostialdean

Ulibeltzak Mendi Taldeak ere segitzen du irteerakin. Urriaren 12an Pasaia-Donostia-Pasaia ibilbidea egin zuten. Eguraldi ederra, bista paregabeak. Ezin hobeki pasatu zuten.

Ba al zenekien

Urriaren 20tik azaroaren 28ra bitarte Nafarroako Gobernutik Sunbillako eskolara fruta bidaliko dutela

FLASH

Dantza ikastaroak

Irailaren 26an dantza jaialdia izan zen, ondoren oporralditxo eta azaroako lehenengo astean berriro hasiko dira talde guztiak dantzak ikasten.

Ehiza garaia

Urriko denbora eder hauekin batera, uso ehiza ere hasia da. Ehiztariak zerura begira egon ohi dira, eta tartean urriaren 18ko asteburuan bezalaxe, uso aunitz ehizatzen aukerazaten dute. Basurde ehiztariak ere kontent, urriaren 19an bi basurde hil zituzten.

12 SARRERA
ZOKZETATUKO
DITUGU
urtean zehar

LESAKAKO
LIDAL KIROLDEGIA
Artoki 11. 31. 770 LESAKA
Telt: 948 637 400
lesakak@urdial.com

LESAKAKO LIDAL
KIROLDEGIA

KULTURA → URRIAREN 17AN AURKEZTU ZUEN

'Entre Dios y la pelota' liburua idatzi du Tiburcio Arraztoak

Marga ERDOZAIN

Con la Iglesia hemos topado, liburuaren lehendabiziko atalak dioten bezala Elizak eta pilotak binomio unibertsala osatzen dute. Pilota eta elizaren arteko harremanak abiapuntutzat hartu ditu Tiburtzio Arraztoak *Entre Dios y la pelota* liburua argitaratzeko.

Lau urteko dokumentazio lanaren ondorekin pilotari eta, batez ere, laxoarekin maiteminduta dagoen egile honek historikoki apezek pilotari munduarekin izandako harremanak harilkatu ditu. Liburutik azpimarratzen ahal diren kapituluaren artean honako hauek dira: joku honen udal arautegia, elizak ezarritako debekuak, apezek nola saihesten zituzten debeku horiek, pilotari jokuak eremu sakratuetan (eliza atarrietan, kanposantuetan), enparantza eta frontoien inaugurazioetan zer nolako bedeinkazioak egiten ziren, apustuak, pilotaren patrioiak (San Francisco Javier...). Erabilitako iturriek eta dokumentatutako materialek liburuari balioa ematen diote, baina bitxikeriek eta hurbileko testigantzek irakurketa atseginagoa errazten dute. Testigantza horietan hainbat apezek egin-


dako ekarpenak ere azpimarratu behar dira. Azken finean, historia nagusiaren gertutasuna jende apalak egiten baitu. Liburuan agertzen diren 100 argazki baino gehiagok ere testuaren balioa eta indarra edertzen dute.

PILOTARI LOTUTAKO IBILBIDE OPAROA

Liburu honekin Tiburtzio Arraztoak osatzen du bere liburu eta dokumentu bilduma, pilotari eta laxoari buruzko beste 4 liburu eta dokumental bat egin baititu. Iruritan jaioa baina duela anitz Donezteben finkatutako irakasle jubilatu honek ttikitatik, batez ere, Jesus Jaimereña apezarengandik jasotako pilotari eta laxoaren zaletasuna, maitasun bihurtu dena. Hori esker Arraztoak laxoaren inguruan egindako lan emankorra aski ezaguna dugu denok. Espero dezagun bere pilotakaden oihartzuna anitz urtez entzutea baigurre frontoietan nola argitalpen gehiagotan ere.

Ba al zenekien

Duela gutxi Himalaian, Nepalen, ekaitz bortitz baten ondorioz ezbehar larria nozitu zuten mendizaleen artean herriko mendizale bat zegoela trekking-a egiten. Zorionez ez zaio deus pasatu eta bere abentura segitzeko aukera izan du. Bizitutakoa kontatuko du!



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Tiburcio Arraztoa, bere azken liburuarekin.

Doneztebarrak 100 euroko sei bale

Doneztebarrak Merkataritza eta Zerbitzu Elkartek udazkeneko kanpaina burutu du 100 euroko sei bale banatuz. Kaxin Sein (Doneztebe), Begoña Elizalde (Doneztebe), Jesus Sanzberro (Etxalar), Rita Urrutia (Elizondo), Josune Ibarra (Narbarte) eta Jesus Zozaya (Uroz) dira irabazleak.

Erreka dantza taldeko helduak

Erreka Dantza Taldeak azaroaren 7an helduen taldea dantzan jarriko du. Lehen hitzordua egun horretan izanen da eta ortziraleroko gaueko 8:30ean eskolako gimnasioan bilduko dira. Aurten bereziki gizasemei zuzendutako oharra taldean parte hartzerako animatuz. Horixe bakarrik falta baitaio talde honi, mutil dantzari gehiago.



2014ko azaroako bestak

- 1** irurita: **the moment** (Bart El Café) - Doneztebe - 948 450 318 - facebook.com/elcafedoneztebe
- 7** gaueko 23:30etan: **HALLOWEEN** (ESKU & LARTE) taldea
- 14** gaueko 23:30etan: **Doneztebeko feriak** (DJ Luismik girotutako besta)
- 22** gaueko 23:30etan: **Musika zuzenean** (SONIC TOYS) taldea

ITUREN

OSPAKIZUNAK → AZAROKO LEHEN ASTEBURUETAN

Musika eta bestak alaituko ditu Aurtizko txokoak

Abarun aterpetxeko urteurrena eta San Martin bestak ospatuko dituzte

Arkaitz MINDEGIA

Urriaren 31an aurtizko Abarun Aterpetxean urteurrenereko kubar besta ospatuko dute. Duela urte bat ireki zuten aterpea hiru gazte hauek eta geroztik gisa guzietako bestak eta ekitaldiak antolatuta dituzte. Aterpetxe eta ostatu zerbitzuaz aparte, karaokea, Santo Tomas eguna, hurrekin kanpaldiak...

Urriko azkeneko egunerako gisa guzietako ekitaldiak antolatu dituzte, egitarau zabalarekin:

17:00etatik 18:00 haurrentzako disko-festa

18:00etatik 20:00etara ate irekiak aterpea ezagutzeko (beraien eskuekin apaindutako gelak eta aterpetxea ikusteko aukera).

21:00etan Kubatar afaria eskainiko dute.

22:30etik aurrera La Jodedera taldearen kontzertua. Gau osoan sorpresak izanen direla gaineratu dute, animazaitze eta ospa dezagun denak elkarrekin Abarun aterpetxearen urteurrena.

Aurtizko bestak

San Martin bestetako egitaraua ere prest dute aurtiztarrek.

ORTZIRALA, AZAROAK 7

- 12:00etan aizkora apustua.
- 13:00etan herriko festei hasiera ematen di-



ARGAZKIA: ANA DANBORIENA

Trikidantz taldea Nafarroa Oinezeko emanaldian. Orain, Aurtizko bestetan ariko da.

en txupinazoa eta ondotik herriko txistulari eta trikitilariekin herriari itzulia.

- 14:00etan Herri bazkaria elkartean Alaia Martin eta Ander Lizarralde bertsolariarekin eta akordeolariarekin kantu zaharrak eta dantzak.
- Arratsalde eta gauen dantzaldia akordeolariarekin. Abarun aterpetxean zopak emanen dira.

LARUNBATA, AZAROAK 8

- 10:00etan kalejira herriko txistulari eta trikitilariarekin.
- 12:00etan kirola nagusituko da herriko frontoian.
- 17:00etan Mendaur

trikitixa eskolaren jaialdia (Aurtitz, Legasa, Sunbilla, Oronoz-mugairi eta Arizkungo eskoletako ikasleek parte hartuko dute).

- 00:30etik aurrera Estu&Larri eta Trikidantz taldeen kontzertuak.

IGANDEA, AZAROAK 9

- 10:00etan kalejira herriko txistulari eta trikitilariarekin. Goizean Malerreka Trukerrekaren eskutik artisau azoka egingen da.
- 17:00etan Ibintza taldeko dantzarien erakustaldia.
- Arratsalde-ilunabarrean dantzaldia.

ASTELEHENA, AZAROAK 10

- 10:00etan kalejira he-

rriko txistulari eta trikitilariarekin.

- 12:00etan gazteen artean jokaturako pilota txapelketako finalak.
- 13:30ean haurren bazkaria.
- Arratsaldean haur joakoak.
- Ilunabar-gau partean mus txapelketa.

ASTEARTEA, AZAROAK 11

- 10:00etan kalejira herriko txistulari eta trikitilariarekin.
- 12:00etan Meza Nagusia San Martin elizan.
- 13:00etan Abarun aterpetxean herritarrendako luntxa.
- Arratsaldean tortilla eta postre lehiaketa, bestak akitzeko.

Salma
INFORMATIKA

- INFORMATIKA TRESNEN SALMENTA
- ORDENAGAILUEN KONPONKETA
Extera ere joaten gara

T. 948 451 846
info@salmainformatika.com
www.salmainformatika.com
Elizagibela, 2 • DONEZTEBE

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarnak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel. 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ORBELA
BENTZAKO OSTATUA

Idoa - Miel
Tel. 948 450 014
BENTZA-LABAN
www.ORBELA-beintza.com

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berrira erosai taldea

MALERREKA

GIZARTEA → IKASTURTEKO LEHEN BILERA

Malerrekako Gure Esku Dago berriz ere lanean

Urriaren 31n Donamariako Herriko Ostatuan bilera irekia antolatu du 20:00etan

Marga ERDOZAIN

Nazio mailan ezarri diren erronka berriak eta adostutako egutegiaren barrenean murgilduta, Malerrekako Gure Esku Dago ekimena sustatzen duen batzordeak berriz ere lanari ekin dio. Ikasturte honetan abiatutako bidea eta ildoa zehazteko bilera idekia deitu dute batzordekideek, ekimen hau bultzatu nahi duen guzien ekarpenak jasotzeko as-

moz. Horretarako, urriaren 31n, ortziralean 20:00etan Donamariako erabil anitzeko aretoan bilera idekia antolatu da. Egun horretan batzordekideek Gure Esku Dago ekimenaren egoera azalduko dute eta etorkizunean batzorde hau agenda, lehenetasunak eta lanak zehazten saiatuko da. Bileraren ondotik berendu goxoa izanen da.

MOSAIKO ERRALDOIA

Hitzordu horretaz gain ere, batzordeak jendea animatu nahi du azaroaren 8an Donostiako Zurriola hondartzan 11:00etatik 13:00etara osatuko den mosaiko erraldoian parte hartzera.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Apirilean egin zen Gure Esku Dago dinamikaren aurkezpena Malerrekako.

IKASTURTE HONETAKO SOLASLAGUN EKIMENA MARTXAN DA

lazko solaslagun kopura eta martxan ziren taldeak mantentzeko erronka ezarri da

TTIPI-TTAPA

Biderkatu Euskara solaslagunen magiarekin da aurtengo kanpainaren leloa eta dagoneko Malerrekako batzordeak zabaldu ari da. Euskaraz solasteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzen dira Solaslaguna programan.

Solaslagunean parte hartzeko izena eman behar da Doneztebeko IKA euskaltegian (948 451555) edo Mankomunitateko Euskara Zer-

bitzuan (948 451746). Malerrekako guraso elkarten bidez ekimen hau zabalduko da interesa duten gurasoak bertako taldeetan txertatzeko edo gurasolaguna taldeak ere sor-

tzeko. Aurtengo kanpainaren helburua da izaz Malerrekako martxan jarri ziren hiru taldeak mantentzea eta, ahal bada, gurasolaguna talderen bat osatzea.



Ba al zenekien

Emakume eta Kirola Nafarroako Gobernua kanpainaren baitan, bi ekimen antolatu direla urriaren 31n; **Osasun Etxeak** bultzatuta. **10:30ean** stand informatiboa izanen da **Doneztebeko Merkaturako Plazan**, nahi duten emakumeei aholku emanez. **11:30ean**, **Emakume eta Kirolari buruzko hitzaldia** izanen da **Mankomunitateko aretoan**.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

ESKAINNTZA: Nordikoak
edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUNEA • 948 230 634



Urdaitegia

**Eskaintza Berezia!
Kalitatea prezio onean!**

Ekarri kupoia
erostean eta eraman
txorizo eta saltxitxoi
iberikoko sobrea
opari.

Irungo Azoka, Iparralde 7 28. Postua
943 62 36 17 - IRUN

www.fcaibericos.com Eskaintzen irungoak data: 2014/11/30

DANA LORADENDA

IRUITEN EZHONTZEN ZIRIETE?

**ETORRI ETA GALDETU GURE
DESKONTUEZ!!**

REPUBLICA ARGENTINA, 19-BILU
MEFIGUAIN, C.C. MENDISI.

floristeriadana@gmail.com
www.floristeriadana.es



943620014

**BIDAIA ONENAK
HASI DIRA JADA!**

Karibe, Kanariak...

Barceló
Viajes

EZ UTZI BIDAIATZEARI

Mendibil Merkataritza Gunea
Tel.: 943 840 808
irun@barceloviajes.com

Mendibil Merkataritza-gunea

Erosi, gozatu eta saria eskuratu

Harat eta honat ibili gabe, behar duzun guztia eraikin bakarrean topatu nahi duzu? Autoa aparkatzeko arazorik gabe? Denboraldiko azken berrikuntzak eskura edukita? Behar eta gustu guztietara egokitzen den eskaintzarekin? Zeren zain zaude! Etorri Irungo Mendibil Merkataritza-gunera. Alsialdi, elikadura, denda eta jatebre eskaintza paregabea duzu ebetik hurbil, Irungo erdigunean. 24.000 metro karratuko eraikina da eta 300 kobreezako aparkaleku estalia du bi solairutan banatuta. Aparkalekuko atea zeharkatu orduko, milaka aukera izanen dituzu begi bistan.

Erosketek saria dute

Gainera, azaroaren 3tik abenduaren 3ra arte, zure erosketek saria izan dezakete. Erosi eta irabazi kanpaina jarriko dute martxo eta bezeroek hilabete horretan egiten duten erosketak bakoitzeko boleto bat eskuratuko dute. Gero, zozketa egin eta boleto horien artean aterako dituzte irabazleen izenak. Denera bost sari zozketatuko dituzte, 2000 euro, 400 euroko bost erosketak bonotan banatuta. Etorri gurera, gorde erosketak filketak eta zorte on!

Zabaltzen doan eskaintza

Mendibil Merkataritza-gunean elikagai eskaintza zabala, egungo moda, zerbitzu ugari eta jatebre eta zinema karteldegia paregabea dituzue esperotan. Goizeko 9:30ean hasi eta 21:30era arte daude irekita komertzioak, 12 orduz jarraian. Supermerkatua bertiz, 09:00etatik 21:00etara egoten da zabalik. 2003an ireki zituen ateak Mendibil Merkataritza-guneak eta geroztik, eraldatzen eta zabaltzen joan da bertako eskaintza. Hala, aur-tengo apirillean Marionnaud perfume eta makillaje-dendak ateak ireki ditu gunean. Horretaz gain, Zarak ere obrak egin eta salmenta eremua zabaldu du. Haur, emakume eta gizonezkoen moda saltzen duen dendan, euren kolezioaren %95a topatuko duzue.

Tradizioa eta berrikuntza lotuaz

Antzinako merkatuaren xarnak eta BM hipermerkatuko aukera zabalak bat egiten dute elikagaien solairuan. Mendibil Merkataritza-gunearen bereizgarri nagusienetakoa da

eta sukaldean zentzumen guztiekin gozariztea da gure helburua. Merkatu tradizionalako 39 postu ditugu eta bertan garaian garaiko produktu freskoak aurkituko dituzue. Erosiko duzuen hori ikusi, usaindu... eta merkatuko giroa zuzenean bizitzera gustuko duzuenok zain izanen dituzue profesionalak. Baina, horren ordez, erosketak internet bidez egitea nahiago duzuenok ere izanen duzue merkatuko produktuak eskuratzeko aukera. Online erosketako aukera eskaintzen dute besteak beste Dana lorendak, Bakailuak saltokiak eta Fernandez C. Arraiza harategiak. Ordenagailu aurrean jarri eta klik bakar-rra eginda, salmenta postuetatik zuen ebeteara joanen da erosketak zuzen zuzenean. Garai eta erosketak modu berrietara egokitzen ari gara.



«Bezeroei komodidade guztiak eskaini, kalitatezko produktuak saldu eta euren fideltasuna saritu nahi dugu»

Malte FERNANDEZ | FC. Arraiza harategia



«Bezeroen eskari eta aurrekontura egokitzen salatzen gara, ametsetako bidaia berme guztiakin egin dezaten»

Rosa GOIKDETXEIA | Barceló Bidaiak

Halloween tailerra ttikienentzat

Saitokia izatez gain, aisialdirako gune bikaina ere bada Mendibil Merkataritza-gunea. Aukera gastronomiko zabala eskaintzen dugu bertako jatetxeetan eta zinemazaleak bazarete, azkeneko estreinaldiak ikusteko aukera duzue 6 zinema-aretoetan. Horretaz gain, sasoi bakoitzari egokitutako ekitaldiak ere antolatzen ditugu. Gabonetako kanpaina berezia izaten da urtero eta aurrez, urriaren 31n, Halloween tailerra ere antolatu dugu haur eta gaztearentzat. Etxeo ttikienek mozorro beldurgarriak egiteko aukera izanen dute, baita kalabazak margotzekoa ere. 17:30etik 19:30era Halloween gauerako beharrezko prestaketa guztiak egiteko aukera izanen dute horretarako prestatutako duten txokoen.

Avda. Iparralde nº 7
20302 - IRUN



**Aparkatzeko
ordu bateko
doako txartela**

Kupoi hau bertara eramanez

AMARRU MENDIBIL APARKAZA SARBATU MENDIBIL



www.fotollor.com

TF: 943-63-61-06

fotollor@fotollor.com

IRUN

Jarraitu ere



Mendibil

Opari Personalizatuak



Begira zer egin dezakegun zure argazkiekin ordu leian.

Errebelatu itzazu kamerako, tableteko, mugikorreko eta abarretako argazkiak 15 minututan



Errebalatu Digitala

**MARKA
HANDIAK
PREZIO
TXIKIAK**

Donostiarra
Lurrindegia

Lurrindegian Especializatuak

Prezio ezin hobekak gama altuko eta publiko zabalarentzat eskaintutako merketan. Edozein eraketetan erakutsi ezazu horako kupoi hau eta gustoko duzun lurrinaren erakutsigai bat jasoko duzu opari

Marionnaud
Parfumeries

DONOSTIARRA GROS
Securidine Etxeola, 19
20001 Donostia - San Sebastián

DONOSTIARRA MORAZA
Moraza, 16
20006 Donostia - San Sebastián

DONOSTIARRA LEGAZPI
Legazpi, 3
20004 Donostia - San Sebastián

DONOSTIARRA ARCO
Plaza de Irún Nº6
20011 Donostia - San Sebastián
Centro Comercial ARCO

DONOSTIARRA MENDIBIL
Almirante Arzobispo 9
20302 Irún (Gipuzkoa)
Parque Comercial MENDIBIL



ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 10 ETA 11N

Euskararen Eguna giro ederrean joan da aurtengoan ere

Herrian bizi diren umeen argazkiekin egindako egutegiak arrakasta handia izan du

Fermin ETXEKOLONEA

Herriko gazteek antolatutako Euskararen Egunak bi egun hartu ditu aurten ere, urriaren 10 eta 11. Egun handia, noski, larunbata izan zen, baina ostiraletik somatu zen mugimendua. Ostiral arratsaldean Errandonea ostatuan egin zen Pintxo lehiaketan hogeitxoko aurkezten ziren eta Itziar Smithen lortu zuen le-

hen saria, Maribel Elizalde izan zen bigarrena eta Yolanda Salaburu hirugarren. Mus txapelketan, berriz, Txomin Hualde eta Xabier Bendoiro suertatu ziren txapelak, finalean Xanti Hualderi eta David Juanikorenari irabazita. Guajiroen eskutik kontzertua aditzeko aukera ere izan zen.

Herriko hameka eskulangileen lanak ikusgai eta erosgai izan ziren larunbat goiz-goi-zetik: egur lanean Migel Arregi, Xanti Hualde eta Luis Mari Esarte. Joxepa Loiarte eta bere taldea taloekin; Maribel Elizalde piper-opilak, Kar-mele Bendoiro okinak, Inmatxo Grajirena eztiak; Lurdes Elizalde eta Ani-



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Joaldunak, 65 heldu eta 17 haur bildu zituen herri bazkaria, herri kirolak eta Eñaut Elorrieta kantari. Euskararen Egunaren irudi batzuk.

ta Hualde barazkiekin, Andrew eta Itziar Smith argazki eta oihalak; Fausti Juanikorena jositako arroparekin. Herriko Ostatuak postu politena bozkatzeko aukera eman zuen eta Migel Arregiren postuak irabazi zuen. Bi lagunendako otordua irabazi zuen. Herri bazkarian 12 botil txanpain ere eskaini zituzten Herriko Ostatu nagusi berriek.

Zaldi itzulia egiteko aukera izan zen eta gazta eta urdaiazpikoa-ren postua ere jarri zen, jendeak pisua asmatzeko apostua egin ze-

zan. Azkenean, gehien hurbildu zirenak Arantxa Santesteban (gazta) eta Imanol Baleztena *Exkurra* (urdaiazpikoa) izan ziren. Tomate bat ere plazaratu zen eta Marina Argote izan zen pisura gehien hurbildu zena. Joaldunek eta trikitilariak ere giroa jarri zuten plaza inguruan. Aspaldian ikusten ez zen herri kirol saioa ere eskaini zuten herriko neska-mutilek.

Txitxilu elkarteak egutegiak egin zituen herrian bizi diren haurren argazkiekin eta arrakasta izugarria izan zu-

en. Bestalde, sakeleko egutegiak ere saldu zituzten eta arratsaldeko zozketan jendetza handia bildu zen. Inguruko komertzioek emandako gauzekin 26 sorta egin ziren eta komertzio horien laguntza ere eskertu nahi izan dute antolatzaileek.

Bertso bazkaria animatua joan zen, Agin Laburu eta Jexux Mari Irazuren bertsoekin eta arratsalde-gau-goizaldean ere izan ziren haur jokoak, Muxikoak eta musika aditu eta dantzatzeko aukera, ordu txikiak arte.

ESKULANA

Joaldunaren irudia urki enborrean pazientziaz eta txukun landu du Migel Arregi herritarrak

TTIPI-TTAPA

Duela 16 urte hasi zen Iriarteko Migel Arregi egurra lantzen, jubilatuz zenean, «denbora pasa». Hainbat lanen artean, iaz Mikel Aingeruaren irudia egin zuen. Orain, Zubietako joalduna atera du urki enborretik, urte erdiko lanaren ondotik.

Migel Arregik koadroak, erlojuak, hautsontziak... lan saila egin ditu, baita 13,5 metroko egurrezko kate bat ere. Denak ere etxerako edo oparitzeko landu ditu, eta ez saltzeko. Oraingoan, oraindik lan handia egin behar izan du urki enborretik joaldunaren irudia ateratzeko. Izan ere, xehetasun guztiak zaindu ditu eta Zubietako jo-

aldunek gerrian lotzen duten ardilarruko ileak ere urki enborretik atera ditu, banan-bana. Ttunturruko zintak irudikatzen dituzten xaflak, azotea eta lepoko zapia, berriz, gaztainarekin egin ditu. Apiril-maiatzean gogoratu zitzaion lan honetan hastea, «hiru semeak joaldunak ditut eta haientzako oroigarri gisara». Lanari lotu eta «egun batzuetan zortzi orduz, besteetan ordu erdi bat...» pazientziaz eta txukuntasunez landu du joalduna. Aurrera begira, zail ikusten du halako lan luzeetan aritzea, «bizkarrerako eta bistarako ez da batere ona», aipatu digu. Baina zura lantzen eta lan tikiagoetan segitzeko asmoa du Arregik.



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 16AN

Ohorezko bazkideak omendu dituzte Donezteben

Hondarribiko
Luis
Sorzabalbere
eta Trinidad
Arruabarrenak
Diamantezko
Ezteiak ospatu
dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Donezteben ospatu zen Arkupeak Elkartearen eguna urriaren 16an. Ohikoa denez, omenaldietarako tarterik ere izan zen meza ondotik. Platinozko Ezteiak ospatzen zituen bikote bat (Hondarribiko Luis Sorzabalbere eta Trinidad Arruabarrenak 60 urte bete dituzte ezkondu-rik), Urrezko Ezteiak ospatzen zituzten 10 bikote eta 85 urte bete dituzten 31 bazkide omendu dituzte. Ederki bazkaldu zuten kiroldegian eta musika eta dantza artean akitu zuten bere egun berezia.

Benidormera bidaiak

91 elkartekide Benidormen izan dira irailaren 29tik urriaren 11ra arte. Bi hoteletan hartu dute ostatu, 51k Poseidon eta 40k Bristol hotelean. Aurreko urteetan Fenicia hotelean hartu izan dute ostatu eta aldaketa ona izan dela aipatu dute, instalazio hobekak dituelako honek. Eguraldia ere la-

gun izan zuten, urriaren 5ean izan ezik, ekaitza lehortu baitzen. Hala ere, ordu erdira barealdia etorri zen eta berriro hondartzaz gozatzeko aukera izan zen. Bidaari-aren artean, 23 elkartekide Gudalest herria ezagutzera joan ziren. Herri honetara sartzeko, harrian egina dagoen ate bat pasatu behar da eta inguruko ikuspegi-egia nahiz museoan jarria duten 12.000 kiloko jaiotza ere ikusgarriak dira. Palop herriko bixita ere interesgarria izan zen, plaza inguratzen duten 221 iturri baititu. Batzuk itsasontzia hartu eta Calpera joan ziren, Ifach-eko har- itza ikustera.

Santiago Bidea

Hamabi elkartekide osatutako taldeak Santiago Bidea osatu dute. Irailaren 26an bukatu zuten azken etapa. Egi-aztagiriak jaso ondotik katedralera joan ziren Santiago besarkatzera eta botafumeiroaren ikuskizunaz gozatzera. Beste taldeak Foncebadonen bukatu zuen ibilbidea eta heldu den urteko maiatzetik aurrera egingo ditu falta zaizkion bederatzi etapak.

Ikastaroen hasiera

Urriaren 1ean, hasi dira Leitza, Bera, Doneztebe eta Elizondoko informatika ikastaroak.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkartekak omendutakoak. Beheitian, Hondarribiko senar-emazteak eta familia.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Benidorm inguruan edo Santiagon, ez dira geldi egotekoak Arkupeak elkarteko bazkideak.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 11N

Udazken Besta ospatu dute Ittur-Ondo elkarteak

Beintzako bikotea nagusitu zen aizkoran

Arantxa ITURRALDE

Udazkenari ongi etorria emateko asmatan, besta giroan hasi dira Beintza-Labaienen. Urriaren 11n herritarrek gozatzeko aukera izan zuten Ittur-Ondo elkarteak antolatutako hainbat ekitalditan.

Batetik, eta nola ez, aizkora erakustaldia eskaini zuten herriko bi bikotek: Etxeberria anaiak beintzarrak (Jesus eta Miguel Anjel), garailu suertatu zirenak, eta Jazinto eta Pello labaindarrak.

Bestetik, afari ederra izan zen elkarteak; piperrada, txuleta, salda eta tarta. Betiko eskal kantu zaharrak kantatu ziren afal ondoren eta giro politaz gozatzeko aukera izan zen.



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Aizkora apostuan, Beintzako bikotea nagusitu zitzaion Labaiengoari. Gauean, afari ederra izan zuten elkarteak.

BERTIZ

GIZARTEA → URRIAREN 31TIK AZAROAREN 30ERA

Hameka jatetxek parte hartuko dute ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatu ditu 22. urtez

TTIPI-TTAPA

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatuta, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hameka jatetxek parte hartuko dute aurten Baztan-Bidasoko Ehizari buruzko 22. jardunaldi gastronomikoetan. Gure inguruan

ehizatutako jakiak beteko dituzte jatetxetako eltzeak. Dagoeneko egutegian finkatua dagoen ekimena urriaren 27an hasi zen eta abenduaren 1era arte iraunen du.

Hauek dira ehizari lotutako menu bereziak eskainiko dituzten jatetxeak: Almandozko Beola, Arantzako Aterpe eta Burlada, Arizkuneko Ordoki, Berako Zalain, Donamariako Benta, Elbeteko posada, Etxalarko Benta hotela,

Iruritako Olari, Oizko Posada eta Oronoz-Mugairiko Urgain.

Urteroko moduan informazio eta orriak eskualdeko margolari baten ilustrazio berezi batenkin apaindu dituzte. Oraingoan, Iciar Mikelperizenaren *La sorpresa del doblete* margolana agertzen da.

Urriaren 29an, asteazken eguerdian egiteko zen aurkezpena Oizko posadan. Emaldi Ereño, Bertizko Partzuergo Turistikoko ku-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Iciar Mikelperizenaren lanak apainduko du informazio orria.

deatzailea; Ruben Garrate, Jatetxeen Elkarte-ko lehendakaria eta Ici-

ar Mikelperizena margolaria izan ziren ekitaldian.

GIZARTEA → BETILAN ENPRESAREN ESKUTIK

Elizaren teilatua eta atariaren zaharberritze lanetan hasi dira

Duela urte batzuk teilatu berria jarri zen, baina itogin batzuk kendu behar dira

TTIPI-TTAPA

Elizaren zaharberritze lanean hasiak dira Betilan enpresako langileak. Hain zuzen, eskola zaharraren teilatua eta fatxada ere moldatu zituen enpresa honek. Oraingoan, teilatuaren goiko aldea berritu behar zuten, baina garai batean hilerria zen eliz atariko ere egingo dute. Duela urte batzuk teilatu berria jarri zen, baina itogin batzuk kendu behar dira.

Duela denbora batek hona, eskuzkoa ordezkatu zuen erloju elektronikoa martxan

dabil, Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* programari esker jarri zena. Radio Parisera konektatua dago, orduak xuxen emateko.

Uso ehiza denboraldi gorabeheratsua

Atsekabeturik zeuden urriko lehen hamabostaldian ehiztariak. Usoren bat ikusia zuten, baina oso urrun. Esaten zuten, izan zitekeen usoen hegoalderako migrazioa atzeratu izana Europa iparraldean oraindik eguraldi goxoa dutelako. Baina urriaren 19tik aurrera aldatu ziren kontuak eta orain pozik dabilta ehiztariak. Badi-rudi hasiak direla usoen hegoalderako bidea hartzen eta Ezkurrako ehiztariak ari dira lanean.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Elizaren teilatuaren goiko aldea eta eliz atariko moldatzen ari dira Betilan enpresako langileak, itoginak kentzeko.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Urrezko Eztaiak

Arkupeak elkarteak urriaren 16an omenaldi berezia eskeini zion Migel Joakin Noble eta Maria Dolores Mindegiari. 1964. urteko urtarrilaren 18an ezkondu ziren herriko Jasokunde elizan eta, beraz, 50 urte bete dituzte elkarrekin. Preko-nean bizi dira. Lau seme-alaba zituzten (semea hil egin zen minbiziaren erruz). Sei biloba eman dizkiete.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Etxenea borda erabat berritu da

Argazkietan ageri denez, erabat berritu dute Etxenea borda. Pena da baina mendeetan zehar herrian iraun zuten 79 bordetatik gehienak hondatzen eta desagertzen ari dira.

LEITZA

IZEN-EMATEA → AZAROAREN 10 ARTE

Kale edo bale, baleikebale! lehiaketa egingen da abenduan

Herriaren inguruko ezagutza bultzatzeko

JM BARRIOLA

Leitzako herria eta herritarrak protagonista izanen dituen lehiaketa egingen da abenduaren 26an Leitzako zinean 22:30ean. Eskualdeko euskara zerbitzuak egingandako proposamenari erantzun eta ekimen hau aurrera aterako zuen lantaldea osatu dute zenbait herritarrek. Leitza izanen da lehiaketako gaia, eta parte hartzaileek galderak erantzun eta proba desberdinak egin beharko dituzte. Helburua herriaren inguruko ezagutza eta herria ezagutzeko gogoia bultzatzea da.

TALDEKAKO LEHIAKETA

Taldeakako lehiaketa izanen da: 3 pertsonako 4 talde ariko dira eta parte hartzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte: Hiru taldekideetako batek 40 urtetik gorakoa behar du, eta beste batek 30etik beherakoa. Denek 16 urtetik gorakoak izan behar dute. Taldean gutxienez emakumezko bat eta gutxienez gizonezko bat behar dira. Izena emateko epea ireki dute eta azaroaren 10era arte egonen da aukera Euskara Zerbitzura idatzi edo deituta

(laga@iparmank.org edo 948510814) edo Karrape Irratian (karrapeirratia@gmail.com edo 948610914).

Izen ematen duten taldeen artean zozketa egingen da, eta lehiaketarako 4 hautatuko dira. Irabazleek 450 euroko txekoa eskuratuko dute. Gainerako sariak sailkapenaren arabera banatuko dira, lau taldeen artean: Alex Mugika, Argiñano eta Leitzako jabetxeetan hiru lagunentzako otorduak, Elgorriaga bainu-etxean 3 zirkuitu, Kantuz Topa ikuskizunerako 3 sarrera, Irrisarri Land parkerako 3 sarrera...

Ekimen honek Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen eta Leitzako Udalaren dirulaguntza eta babesa jaso du. Baita herritarrena ere, Leitzako Udalak 50.000 euro bantatzeko antolatutako parte-hartze prozesuan parte-hartzaileen babesa jaso zuen eta ondorioz baita dirulaguntza ere. Lehiaketa egitasmo zabalago baten parte da eta beste euskarri batzuetan ere zabalduko dira herriaren ezagutza handitzeko eta hobetzeko edukiak.

Zinema denboraldi berria

Urriaren 24an eman zitaion hasiera 2014-2015 zinema denboral-



ARGAZKIAK: UTZITAKO ARGAZKIA

Iberoko eremuan lanean ari dira

Cederna-Garalurren bidez lortutako dirulaguntzarekin aurten lanen bigarren faseari ekin diote Larrate enpresakoek. Iñaki Sagredok zuzentzen duen lan taldeak torre inguruan indusketak egin ditu. Ondoren zimentazioa egonkortzeko tratamenduak egin eta sarrerako harrizko arkuak sendotzeko lanak ere egin dituzte. Orain erakusketa bat prestatuko dute eta aurrerago aurkezteko asmoa dute. Urtero lanen bat egingen da inguruan erosi zenean hartutako konpromisoa betetz. Izan eren, ingurua poliki poliki berreskuratzen joan eta etorkizuneko garai hartako bizimoduak ikusteko leku bihurtzea da helburua.

diari Paolo Sorrentino zuzendariaren *La gran Belleza* filmarekin. Hurrengo emanaldiak urriaren 31n eta azaroaren 2an izanen dira. Spike Jonzeren *Her* pelikula izanen da ikusgai. Azaroaren 7 eta 9an berriz, Martin Scorsesearen *Ellobo de Wall Street* izanen da ikusgai. Emanaldiak ostiraletan gaueko 10:30etan eta igandee-

tan arratsaldeko 7:30etan izanen dira. Sarrera 6 euro kostako da.

Errigora saskia salgai

Aurten ere Errigora ekimenarekin bat egiteko aukera izanen da herrian. Nafarroa hegoaldeko nekazaritza indartu eta euskalgintzari bultzada ematea da hel-

burua. Horretarako eremu horretako nekazaritza produktuak Euskal Herri guztian zabaldu nahi dira. 50 euroren truke, kalitate bikaineko produktuen saskia jaso ahalko da etxean, eta irabaziaren %25a euskarari laguntzeko bideratuko da. Urriaren 27tik azaroaren 12ra eskararak egiteko aukera izanen da.

GIZARTEA

Landa eremuko emakumeen omenez

TTIPI-TTAPA

Urriaren 15ean ospatu zen Landa Eremuko Emakumeen Eguna eta horren harira, erakusketa, dokumental emanaldia eta mahai ingurua antolatutako Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. *Diruaren sexu ezkutua* izenburupean, 50 diruzorok eta emakumeen testigantzek osatzen duten erakusketa ireki zuten. Ikusgai egonen da udaletxean azaroaren 4ra arte. Horrekin batera, Haurralde Fundazioa eta Malen Etxearen eskutik *Larre motzean* dokumentala ikusteko aukera izan zen. Amaitzeko

ARGAZKIA: ARANTXA IPARRAGIRRE
Larre motzetik dokumental emanaldia.

urriaren 22an mahai ingurua egin zuten Atekabeltzen, eskualdeko zenbait emakumeren bizipenak jasotzeko. Kristina Saralegi (abeltzaina eta aizkolaria), Miren Intxaurre (Sarriongo langilea), Jaione Aldaia (Esporazio arduraduna eta coach-a) eta Garbiñe Hernandorena (burdindigiko saltzailea) izan dira hizlariak.

IZEN-EMATEA → ABENDUAREN 12RA ARTE

Etxebizitzak eskatzeko zerrenda irekita

Udaletxean eskuratu liteke informazio guztia

Juana Mari SAIZAR

Udalak abenduaren 12ra arteko epea eman du etxebizitza eskuratu nahi dutenek izena eman dezaten. Informazio guztia udaletxean edo www.navarra.es helbidetan 2014/09/19ko boletinean (iragarki kodea 1.1412449) eskuratu liteke. Etxebizitzak esleitzeko orduan, udalak adostutako irizpideak hartuko dira kontuan eta abenduaren 12a baino lehen izena emango dutenek izango dute lehen tasuna.

Euskararen eguna antolatzen

Abenduan ospatzen den euskararen eguna antolatzeko bilerak egin hasi dira. Aurten antolatzaileren artean izango da euskara taldea ere, udala, guraso elkarte eta lagun artekoekin batera.

Errigorako saskia

Saski eder hauek Nafarroako hegoaldeko uztaz osatuta daude, 50 euro balio dute eta kopuru horren %25a Nafarroa hegoaldeko eskalgintzari bultzada emateko bideratuko da. Azaroaren 12a baino lehen egin behar da eskaria Sastinen jarritako orrian.



ARGAZKIA: JOSEFINA REZOLA

Kinto bazkariak ikaragarriko arrakasta izan du

Lehen aldiz, herriko hiru kinto elkartu eta bazkaria egin zuten. Oso pozik ibili ziren elkarrekin, aspaldiko tratua berreskuratu eta garai zaharrak gogoratuz emoziorako tarterik ere izan zen. Hurrengo urterako zita ere egin zuten.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

LOMCE legeari buruzko hitzaldi interesgarria

LOMCE legeari buruzko hitzaldia egin zen urriaren 9an eta gaiari buruz asko ikasleko aukera izan zen. Badirudi gaur egungo ikasleek 40 urte atzera egin behar dutela. Ikaslea ez da orain arte bezala kontuan hartuko eta emaitzak izango dira guztiaren oinarria, zenbakiak. Horren arabera ikasle eta eskolen banaketa egingo da, on eta txarren multzoetan banatuta. Gaiaren inguruan kontzientzia hartzen hasi beharko daugu, ez dakigu eta zer heldu zaigun pixkana pixkana...

LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOAN

Baso lanetarako diru laguntza deialdia ateratzeko eskaria aurkeztu dute eskualdeko 17 udalek

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik basoetan hobekuntza lanak egiteko dirulaguntza deialdirik atera. Horren ondorioz, eskualdeko zenbait udalek salatu dute ezinezkoa zaiela «mendi eta basoetan egin beharreko hobekuntzak egitea eta beste kasu batzuetan kalteak eragin ditu». Egoera salatu eta irtenbide eske, Nafarroako udalerrri desberdinetako 70 alkatek (eskualdean 17k) manifestu eta eskaria bat sinatu dute eta Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamen-

duan aurkeztu dute. Idatziari adierazi dute «basoak egoki mantentzeko udalek diru laguntza hauek jasotzeko aukera izatea ezinbestekoa» dela, «basoen geroa eta iraunkortasuna mantendu ahal izateko eta aurreko urtean egingako inbertsioak mantentzeko». Udalek gastu hauei beren kabuz ezin dietela aurre egin azaldu dute eta laguntzak ahalbidetu ezean «lanak egiteko gaitasunik ez dutela izanen udalerrri askok». Gaineratu dute «gure herrialdeko garapen sozioekonomikoan atal garrantzitsua» betetzen duela basogintzak eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskualdeko ordezkariak Iruñean aurkeztu dituzte eskariak.

lanpostu ugari sortzen dituela». Egoera hau izanik, 2014rako Toki Entitateentzako Baso

Lanetarako Laguntza deialdi berria «berehala ateratzeko» eskatu dute.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 8AN UMORE ONA ELKARTEAREN EGUNA

Azaro Kulturala asteburu honetako ekitaldiekin abiatuko da

Euskal Herriko naturari buruzko bideoa eskainiko du Ander Olaizolak

TTIPI-TTAPA

Azaro Kulturala asteburu honetan abiatuko da. Hain zuzen, Ander Olaizola herriko argazkilaria Euskal Herriko natura bideo emanaldia eskainiko da azaroaren 1ean, larunbat arratsaldeko 7etan Herriko Etxeko Ganbaran.

Azaroaren 7an, ostiral arratsaldeko 7:30ean *Wukro* hitzaldia eskainiko dute Ganbaran eta azaroaren 8an, Umore Ona elkartearen eguna ospatuko da, beti bezala ekitaldiz ederki hornitua. Goizez pilota partidak izanen dira, arra-

tsaldean futbito partidak. 19:00etan dantzariak eta Abesbatza kalehira Egun horretan, 17:30ean *Aresoko Harria* antzezlanak ikusgai izanen da Ganbaran.

Azaroaren 14an, 19:30ean Ganbaran Lidia Montesinos izanen da hizlari. Azaroaren 15ean, umeentzako jokua izanen dira eta Dabit Anauten *Euskararen kate hautsiak* liburuaren aurkezpena egingen da 19:00etan Ganbaran.

Azaroaren 21ean, *Euskal Herriko altxorretan barrena* ikusgai izanen da 19:30ean Ganbaran eta azaroaren 22an, sendabelarrak Goxaliin 18:00etan.

Azaroaren 28an, *Erri-matuz garenera arri-matuz* Oskar Estangaren ikuskizuna izanen da 19:30ean Ganbaran. Nola ez, azaroko ekitaldiak hilaren 29ko artisauro, nekazaritza eta

azinda feriarekin boro-bilduko dituzte.

Alkasoaldeko bidean auzolana

Udalak Alkasoaldeko bidea eta bide bazterrak garbitzeko auzolana deitu du azaroaren 8an. Goizeko 8etatik 12etara egiteko asmoa dute eta Irisarriko frontoian geldituko dira. Udalak *Landroverra*, larrak eta zikinak biltzeko karroa eta tresna batzuk jarriko baditu ere, etxetik igitaia, segak edo desbrozadorak eramatea ere eskatu dute. Hamaiketako ere izanen omen da. Bide bazterreko lar eta sasiak kendu, ubideak garbitu eta gisako lanak egingen dira.

Guraso Elkarte

Andres Narbarte Xalto eskolako Guraso Elkartearen batzordean hi-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Iker Salaberria Nafarroako txapelkun kadete mailan

Iker Salaberriak Nafarroako buruz buruko pilota txapelketa irabazi du kadete mailan. Urriaren 22an Labriten jokatuako finalean 18-7 irabazi zion Obe-renako Cordon-i. Hasiera berdinduaren ondotik, 6-4koaren ondotik, bost tantu segidan egin eta hautsi zuen partida Salaberriak (11-4). Gero, zailtasun handiegirik gabe lortu zuen txapela.

ru kide berri sartu dira: Iñaki Rodriguez Tomasena, Ane Zinkunegi Ugaldere eta Mari Jose Etxeberria Azpiroz. Lehendik gelditzen diren Lurdes Loiarde Eskudero, Mari Jose Narbarte Etxegia eta Elena Garcia Camporekin osatuko dute batzordea.

Taichi eta Chikun ikastaroa

Azaroaren 8an hasi eta larunbatero 10:30etik 12:00etara Taichi eta Chikun ikastaroa izanen da Mintxorekin udal txapela. Ikastaroan doan da eta animatu.

ARANO

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 8AN

Sanmartin eguneko ospakizunetan historiari keinuka

Elizako erloju zaharrari buruz erakusketa eta hitzaldia prest

Ainhoa ANSA

Azaroaren 8an, larunbatean, sanmartinaren ospakizunak eskainiko dira herrian. Iluntzeko 8:00etan ohi-koa denez, talo eta

gaztain jatea antolatu dute, eta aurretik Elizako erloju zaharraren sekretuak ezagutzeko aukera izango da.

1909an egin zuen er-

loju Serapio leregi erlojugileak eta Xabier Alvarez leregi, haren birbilobak eskainiko du hitzaldia. Ehun urte baino gehiago bete ditu er-

lojuak, berezia da oso, baina gutxi dakigu bere historiari buruz. Sanmartinetako larunbatean, 17:30etik aurrera eskainiko du hitzaldia, datu interesgarri asko emango ditu eta hitzaldiarekin batera erakusketa ere izango da, garai bateko argazkiekin eta hurrek egindako eskulanekin osatua.

Galdu ezin den hitzordua berezia.

GIZARTEA → OSASUN ETXE ETA LIBURUTEGIETAN

Euskarazko zerbitzuak bermatzeko ez du neurririk hartuko Nafarroako Parlamentuak

Eskari hori egina zion UEMAK urriaren 15ean egindako agerraldian

TTIPI-TTAPA

Administrazio publiko lanpostuei hizkuntza eskakizuna ezartzeko eskatu zuen UEMAK Nafarroako Parlamentuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Saileko batzordean urriaren 15ean egindako agerraldian. Astebete beranduago, urriaren 23an Bildu eta Aralar-NaBai taldeek aurkeztuta, UEMAREN eskaerak jasotzen zituen mozioa eztabaidatu zuten Nafarroako Parlamentuan egindako osoko bilkuran. Mozioak, I-E eta Geroa Baien babesajaso bazuen ere, ez zen nahikoa izan aurrera ateratzeko. UEMAK salatu du «nahiago dute euskara desagerrarazteko helburua duen hizkun-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Abril eta Eneka Maiz izan ziren UEMAKo ordezkariak Parlamentuko agerraldian.

tza politika bultzatzen jarraitzea, hankamotza suertatuta ere, indarrean dagoen euskararen legea bera ere garatzeko eta betetzeko ez dutela inolako borondate politikorik, ez UPNk, ez PPK, eta ezta PSNk ere».

UEMAK oso larritzat jo du Nafarroako udal-erri euskaldunetako herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko funtzio publikoan

plantilla organikoak aldatu, eta eremu euskalduneko profesionalei hizkuntza eskakizunak jartzeko helburuz aurkeztutako mozioa atzera bota izana: «Parlamentuak, beste behin, entzungor egin dio herritarren eskaerei, eta udal-erri euskaldunek proposatutako neurriak ez ditu aintzat hartu. Ondorioz, Nafarroako Gobernuak herritarren hiz-

kuntza eskubideak zapaltzen jarraituko du, eta Nafarroako euskaldunak babesik gabe utzi».

UEMAK udal-erri euskaldunetako osasun etxe eta liburutegietako egoeraren gainean egindako azterketek argi erakutsi dute zer nolakoa den Nafarroako egoera. Agerian gelditu da Nafarroako Gobernuak sistematikoki urratzen di-

tuela legeak herritarrei aitortzen dizkien hizkuntza eskubideak. UEMAK dioenez, «Nafarroak bestelako hizkuntza politika bat behar du, integratzailea, herritar guztien hizkuntza eskubideak aintzat hartuko dituen, eta hizkuntza-iraupenerako, garrantzerako eta zabalkunderako baliagarria izanen dena».

Errealitate honen aurrean, lehenik eta behin, egoeraren larritasuna azalera nahi du UEMAK: «Baina, etsipenean erori gabe, herritarrei dei egin nahi die lege dagozkien hizkuntza eskubideak aldarrikatu eta exijitzen jarraitzeko. Bide horretan, UEMAREN eta UEMAKO kide diren udalen babes osoa izango dute. Eta jakinarazi nahi dugu UEMAK euskara sustatzeko lanean jarraituko duela, euskararen arnaguneak sendotu eta zabaltzen, herritarrek euskaraz bizitzeko duten eskubidea oinarri hartuta».

Bilatu zure bilketarako tokia www.carnesveganas.com in-line denda.

Arkumea, txahal eta mizkal lote ekologikoak zuzenean zure etxera, bitartekaririk gabe.

Berriatik bertara hazi nahi dugulako

trigo Limpio

615 734 058 • Gasteiz • Ibañeta • Salgotza • Arbañeta • Oñate

HARPIDETU!

eta hamabostero aldizkaria zure etxean hartuko duzu

TARIFAK

- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 59,50€
- Baztan, Urdazubi eta Maierreka 34€
- Leitza 17€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 59,50€

Koskontako bidea, 7 - 1 31770 LESAKA
T. 948 635 458 F. 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 1EAN

Kirikoketa Egunak borobilduko du Larrazken Kulturala

Arizkungo Gamioxarreko dolare barrokoan sagardogintza erakustaldia antolatu du Jo ala Jo elkarteak

TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo kultur taldeak hamabosgarren urtez antolatutako Kirikoketa Besta Arizkuneko ospatuko dute azaroaren 1ean. Egun osoko ekitaldiekin batera, 11:00etatik aitzinera XVIII. mendeko Gamioxarreko dolare barrokoan sagardogintza erakustaldia ere egingen da: sagar jotzea, lehen estutze edo tinkatzea, zu-

ku dastaketa eta kupe-laratzea. Lanak akituta-koan kirikoketa jotzea egingen da. Segidan bazkari herrikoia izanen da. Ospakizunean, herri musikariak eta dantzak, erraldoiak, taloak, artisauiak, Bidasoaldeko hazien sarea, kontzertuak eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira. Hamabosgarren urteurrena berezia denez, sorpresaren bat edo bertze ere izanen da.

23:00etan kontzertua izanen da, Kirikoketa bestaren hamabosgarren edizio hau eta Jo ala Jok antolatutako Larrazken Kulturala akitzeko. Egun handiaren aitzinetik, urriaren 30ean, ortzegun arratsaldeko 7etan sagar dastaketa ikastaroa ere egingen da Arizkungo Gamioxarrean.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Bielsa ahizpei omenaldia egin diete Txokoton

Elizondoko presaren zaindari titulua irabazia duten Errotazaineneko Nati eta Tere Bielsa Munarriz ahizpak omendu zituzten Txokotoko bizilagunek, auzoa txukun mantentzen eta zaintzen egiten duten lana eskertzeko. Mikel Barea doktoreak eta Bertan elkarteko Lourdes Andueza presidenteak bultzatu zuten bazkarian akitu zen ekitaldia, baina bizilagun guztiak hartu zuten parte. Heldu den urtean ere errepikatzeke asmoz dira eta sorpresaren bat ere izanen omen da.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Elizondoko Abesbatza

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak eta Elizondoko Abesbatzak kontzertu berezia eskaini zuten urriaren 18an, Elizondoko Santiago elizan. Jesus Echeverria izan zen orkestren zuzendaria eta Isabel Lacar abesbatzarena. Eliza bete zuten jendeak txalo zaparrada batekin saritu zuten musikarien lana.



Víctor Pérez Agrícola S.L.

NEKAZARITZAKO MAKINERIA, LOREZAINITZA, JOSTAILU-DENDA
T. 948 70 39 27 - Zaragozako errep., 37.km - 31300 - TAFALLA (Nafarroa)
www.victorperezsl.com

BAZTAN ETA MALERREKAKO TAILER KOLABORATZAILEA:

BAZTAN MOTOR S.L.

Zaldubia Ind. 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 - 948 58 06 55
M. 629 03 09 28

- Bilgailu berrien eta okasiokoekin salmenta, aztertuak eta bermatuak
- Marka guztiakoko auto, lur orotariko eta furgoneten konponketa mekaniko eta elektrikoak
- Txapa eta klase guztiakoko karrozerien konponketa: burdinezkoa, aluminiozkoa eta poliesterezkoa
- Blac-Hawk bankadako kolpeen konponketa eta P.188MK2 neurtzailea
- Pintura sintetikoa, akrilikoa eta ur-pintura (ekologikoa)
- Bilgailuen personalizazioa, aire girotuaren birkarga, bolazko krokagailuen eta klase guztiakoko osagarrien muntaiak
- I.A.T. aumeko linea
- Bezeroentzako grua zerbitzua



GIZARTEA → ELIZONDOKO ARIZKUNENEAN

Drogen kontsumoaren gaineko Guraso Eskola egiten hasiak dira

Hegoak elkarteak emanen ditu lehen hiru saioak eta ANASAPSek azkenekoa

TTIPI-TTAPA

Drogen kontsumoaren gaineko Guraso eskolaren saioak antolatu ditu Udaleko Gizarte Zerbitzuak Arizkunenea kultur etxean urriaren 28an eta azaroaren 4, 11 eta 13an, 17:00-etatik 19:00etara. Lehen hiru saioak Hegoak Elkarteak eta azkena ANASAPS-Dizdirak emanen dituzte. Honetan, osasun mentala eta droga kontsumo artean dagoen lotura aztertu-

ko da prebentzioaren ikuspegitik.

Hegoak elkarteak droga kontsumoaren prebentzioan lan egiten duen taldea da; ANASAPS, ordea, buru osasunaren arloan norbanako nahiz talde mailako egoerei aurre egiten dien elkarte da.

Saioak, arratsaldeko 5etatik 7etara egiten direnak, adin desberdinetako haur-gaztetxoek gurasoei zuzenduriko hitzaldi parte hartzaileak izanen dira, prebentzioa ttiki-ttiketatik lantzen den jarrera arduratsua delako.

Ez da beharrezkoa aitzinetik izena ematea. Informazio gehiagorako paratu harremanetan Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuekin telefono zenbaki honetan: 948 580006.

FOLK AMETSETAN ZIKLOA

Maria Salgado, Ruper Ordorika eta Desvarietes kantari azaroan

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Batzordeak Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatutako Folk Ametsetan Zikloko hiru emanaldi izanen dira azaroan Elizondoko Arizkunenean. Azaroaren 9an, *Maria Salgado*ren *Abrazo-Abraço: música de la "raya"* emanaldia izanen da; azaroaren 16an Ruper Ordorikak eskainiko du kontzertua eta azaroaren 23an, Desvarietes taldearen *Cosmopolítan Cabaret*. Emanaldi guztiak, beraz, igandetan arratsaldeko 7etan izanen dira.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL ETA UTZITAKOAK

ELAren ikerketa bulkatzeko bustialdiek ez dute etenik

Esklerosi Lateral Amiotrofikoa (ELA) eritasuna ezagutarazteko eta ikerkuntzarako dirua biltzeko asmoz, Baztango Batzar Nagusiak ere onartu zuen Amaiurko sokatira taldeak luzatutako erronka, eta elkartasun kateari jarraipena emanez busti egin zen urriaren 11n, Balleko Etxearen aitzinean. Batzarkideekin batera, ELA eritasunarekin hildako Joxe Jabier Sarratea eta Alicia Arozarenaren senideak ere izan ziren ekitaldian. Baztango herrietako eskolek eta institutuek, Txaruta Pilota Elkarteak eta Baztandarren Biltzarra Elkarteak jaso zuten katearekin segitzeko gonbitea eta elkarte honetako kideek segidan hartu zuten lekukoa, erdiko argazkian ageri denez. Baztandarren Biltzarrak, Baigorriko Basaizea elkarteari, Trikidantz musika taldeari eta Baztango bertso eskolari luzatu die katearekin segitzeko erronka. Bertzetik, Lekarozko instalazioak zaintzen dituen Patziku Pernauta ere busti zuten Menditarrak BRTko taldekideek, La Unicaren kontrako derbiaren ondotik.

BAZTAN

GIZARTEA → AZAROAREN 5ETIK 12RA

Berdintasun Plana ezagutzeko saioak egingen dira kuartelka

Orain arteko zirriborria ezagutzera eman eta ekarpenak egiteko aukera izanen da

eztabaidatzeaz gain, ekarpenak egiteko aukera izanen dute herriarrek. «Baztandar guztiona izango den Berdintasunerako Plan honek baztandar guztion parte hartzea eta konpromisoa behar duelako, saio hauetan parte hartzeko gonbitea» luzatu dute Udale-
tik.

Azaroaren 5ean, asteazken arratsaldeko 7etan Erratzun egingen da aurkezpena; azaroaren 10ean, astelehen arratsaldeko 7etan Iru-
ritan; azaroaren 11n, astearte arratsaldeko 7:30ean Elizondoko Arizkunenean eta azaroaren 12an, asteazken arratsaldeko 7etan Ani-
zen.

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Berdintasun batzordeak lehen aldiz egin den Berdintasun Plana eza-
gutzera emateko aurkezpen saio parte hartzaileak antolatu di-
tu.

Azaroaren 5etik 12ra bitartean Baztango 4 kuarteletan egingen di-
ren saio hauetan, orain arte landutako Planaren zirriborria ezagutu eta

FLASH

Paxkal Irigoyen kontzertuan Amaiurren

Paxkal Irigoyenek *Lau sasoinak* kontzertua eskainiko du azaroaren 2an, igandean 18:00etan Amaiur-
ko Herriko Etxean.

Idazleekin solasean ekimena

Alaa Al Aswaniren *Jakobian Eraikina* liburu-
buz aritzeko Xabier Olarra itzultzailea gonbidatu
dute Arizkunera azaroaren 3an, 19:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ernesto Prat-ek Elizondoko Gaztetxean aurkeztu du nobela...

Ernesto Pratek *Orpoz orpo* bere bigarren nobela Elizondoko gaztetxean aurkeztu zuen urriaren 10ean. Eleberria argitaratu berria izanik, tramaren inguru-
koak saihestu nahiago izan zituen eta, horrela, solasaldia kontaketaren elemen-
tu orokorretan eta idazketaren ingurukoetan antolatu zuen. Gaztetxeko goiti-
ko solairua jendez bete zen eta mokau eta hurrupaldien artean goxoki egon zi-
ren. Orain artio liburuaren berri emateko eskainitako elkarrizketetan aipaturiko
kontu batzuk azpimarratzeaz gain: nobela pitoa dela; sexua, umorea eta klan-
destinitatea nahasten dituela; gazte baten parodia dela... Idazketa momentua-
ri eta klandestinitateari dagozkion hainbat bizipen eta gogoeta partekatu zitu-
en, entzuleak sasiko bizitzaren trama egiazkoarekin harrapatuz eta ixilpeko
mundu errealean horren parte eginez; orduan agertu ziren beldurra, hestura, gerra
zikina, jazarpena... Eta, halako baldintzetan bizitzeko indarra atxekitzeko no-
bela pitoa idatzi beharra. Umorea, bizirauteko estrategia bezala.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

...eta Larretxeak eta Salaburuk beraien liburuak Iruritan

Urriaren 18an aurkezpen gurutzatua egin zuten Arizkongo Pello Salaburu eus-
kaltzainak eta Arraiozko Hasier Larretxeak Iruritako Jauregiarte ostatu kultura-
lean. Salaburuk Larretxearen *Larremotzetik* (Erein) liburua aurkeztu zuen, eta
Hasierrek, berriz, Pelloren *Errateko nituenak*. *Cuzcoko kronika* (Erein).

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 560 313
ELIZONDO

MENDIALDE
s.a. Jakobian

T. 948 453 060 AMAIUR
www.mendialdea.com

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 20 · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 31N

Gaztain erre besta antolatu du SOS Alkerdi Plataformak

Frontoian eginen da eta inguruko mendietako gaztainak biltzeko deia egin dute

Inigo IMAZ

Herriko ondarearen aldeko ekimenekin jarraitzeko asmoa azaldu zuen SOS Alkerdi Plataformak gan den 17an egindako batzarrean. Gaztain erre besta ospatuko dute urriaren 31n frontoian, ortziral arratsaldeko 7etan. Horretarako, herritarrei deia luzatu zaie, inguruko mendietan dauden gaztainak jaso eta 31n egingo den festan erretzera joateko.

Irailaren 26ko udal batzarra

Herriko Etxean elkar-tu ziren Azkar eta Urtxumeko zinegotziak eta SOS Alkerdiko ordezkariak. Hainbat herritar ere gerturatu ziren udal batzarrean.

Hasteko Cederna-Garaur elkartean parte hartzeko 2015 urteko kuota proposamenak

aztertuziren. Bertalde, Rafael Moral jaunak Arretxea Bentari emaniko obra lizentziaren kontra jarri duen auziaren berri eman zuen Alkateak hirugarren puntuan; aldiz, seigarren puntuan, Arretxea erakitzen ari den gune komertzial berriaren obrak gelditzeko epaitegietan aurkeztua den helegiteari emandako erantzunean, Alkateak Herriko Etxeko arduradunen kontrako salaketa bati buruzko informazioa irakurri zuen. Minuta daude udal agintariak, izan ere Herriko Etxeak Arretxeari saldu

zior udal lursail baten ondorioz, «kereila kriminala jarri digute, Idazkariaren sinadura dela eta, agirien faltsutasuna» egotziz Udalari.

Laugarren eta bosgarren puntuak, alkatearen hitzetan, «pozgarriak dira guretzako». Izan ere, laugarren puntuari dagokionean, Nafarroako Administrazio Auzitegian Urtxumeren aldeko epaia, Apaleneako obrei emandako lizentziaren gainean, bertan behera utzi du Kontenziosoaren epaitegiak. Eta bosgarrenean, berriz, Venta Peiori jarritako 60.000 euroko



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Zunba ikastaroa hasi da Ione Bengoetxea irakasle berriarekin

Zunbako eskolak hasi dira irakasle berriarekin urriaren 22tik aurrera. Itsi Hernandez mexikarrak utzitako lekua hartu du Ione Bengoetxea urdazubiarrak. Zunbako eskolak asteazkenetan, arratsaldeko 7:30ean dira eta Ugarana Emakume Elkarteak antolatua dira.

isunaren kontrako errekurtsoa bertan behera geratu baita.

Gazteen elkarteko afaria

Azaroaren 15ean egingo dute herriko

gazteek urteroko afaria. Lehenik bilera eginen da, arratsaldeko 8:30ean, elkarteko bazkideen eskutik. Ondoren afaria eginen da. Montxon izena eman eta erresarba egin behar da afarian parte hartzeko.

URRIAREN 25ETIK AZAROAREN 7RA

Pintxoaren Hamabostaldia lehen aldiz Dantxarinean


Aukeraketan parte hartzen dutenen artean landetxe batean asteburua zozketatuko da

TTIPI-TTAPA

Pintxoaren Lehen Hamabostaldia egiten ari dira Dantxarinean urriaren 25etik azaroaren 7ra. Horren aurkezpena egin zuen urriaren 21ean Txomin Iribarren, Dantxarinea elkarteko pre-

sidenteak. Beraz, hamabortz egunez Dantxarineako Bentako jatetxeek okasio honetarako egin dituzten pintxoak eskaintzen ari dira.

Mugaren bi aldeetako sukaldari ospetsuak izanen dira epamahi eta pintxo hobereena izendatuko dutenak. Baina adituez gain, jendeak ere parte hartu ahal izanen du bozketan. Horretarako, Urdax-Urdazubiko Facebook orrialdean azalpen bat uztea nahikoa da edo bentetan egonen diren boletoak betetzea.



Dantxarinako pintxo hoberean aukeraketan parte hartzen dutenen artean zozketa eginen da eta irabazleak Mutrikuko Haitzalde Landa-Turismoan asteburua pasatzeko aukera izanen du.

SARA

KULTURA → URRIAREN 19AN

Santa Katalina kaperan berrehun lagun bildu dira Usopop-eko kontzertuak aditzera

Duela bortz urte sortu zen festibala

Joana GERENDIAIN

Urriaren 19 an, igande iluntzearekin 200 bat pertsona hurbildu dira Santa Katalina kaperara Usopop-ek antolatutuen kontzertuak entzutera.

Usopop festibala 2009an sortu zen Patxi Dutournier eta Joanes Garcia Basurcoen ideiaz. Haien xedea da kontzertuak gela klasi-koetatik at egitea Sarako ondare naturala baliatuz eta ezagutaraziz, baina edozein adinetako jendea ere hunkitu nahi dute haien ekimenekin, «belaunaldi guzientzako festibala izan

nahi dugu» dio Joanes Garcia Basurcok. Gaur egun elkarteak kontaktu sare bat osatu du musika munduan eta festibalatik pasa diren artista guziak kontent dira izandako harreraz.

Azpimarratu behar da elkarteak aurrekontu ttikia duela eta beraz gonbidatutako taldeak ez dira oraindik ezagunak baina Joanesek dioen bezala «gero handiagok diren artisten deskubritzen saiatzen gira». Elkarteak urtean behin ekimen handi bat antolatzen du, maiatzean gehienetan, «Usopop festibala» baina gero urtean zehar formatu ttipiagok egiten dituzte Santa Katalinako kontzertua bezala. Elkarteko ki-
deak kontent dira festi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Dorian Wood kaliforniarrek emanaldi berezia eskaini zuen Santa Katalina kaperan.

balak duen arrakastaz: «Gure fama ez da erraldoia baina hurbileko jendea pozik ikustea garraipen bat da guretzat. Halere 500 pertsona Sarako mendi puntara erakartzea indie musika proposatuz ez da gutti».

Gau beltza Herriko Etxeko edantegian

Urriaren 31n, ostiralekin, gaualdi berezia izanen dira Herriko Etxeko edantegian. Arratseko 7etan, presoen aldeko elkarretartzea egiten da eta ondorengo pintxoak jaten ahalko dira. 20:30ean *Ataun of the dead* eta *Josean's hil eben* karlistada denboran pasatzen diren, laztura filma umoristikoak emanak

izanen dira ostatuan (azpitoluekin), egileen presentziarekin. Gaua giro onean bukatzeko 22:30ean Paxkal Irigoyen eta Larrazken orkestrak kontzertu bat emanen dute.

Herriko Etxean ordutegi berria

Urriaren 27tik goiti ordutegi berriak izanen dira herriko etxean. As-telehen, asteazken eta ostiraletan idekia izanen da goizeko 9etatik 12:30era eta arratsaldean 2etatik 6etara. Astearte eta ostegunetan goizean bakarrik 9etatik 12:30era.

Kirol emaitzak

Urriaren 11-12ko asteburuan eskubaloian

11 urtez azpiko ekipak galdu du 9-7 Tarnosen kontra, 13 urtez azpikoek galdu dute 30-19 Senpereren kontra. 18 urtez azpikoek irabazi dute Leeousseko ekiparen kontra 19-11.

Errubian erreserbak galdu du 15-8 Pomarezeko ekiparen kontra eta erreserbak ere galdu du 12-21.

Urriaren 18-19ko asteburuan eskubaloian, 13 urtez azpiko ekipak galdu 38-10, 15 urtez azpikoek irabazi dute 13-8 Urruñaren kontra, Seniorrek irabazi dute 17-13 Atarratzeren kontra.

Errubian, erreserbak irabazi du 25-0 Puyoo-oren kontra, hangoek opor egin baitute. Lehenak galdu 9-0.

JATETXEA-ERREBETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABERNA-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK - OGITARTEKOAK
MENVAK ENKARGUZ - PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ttipi-ttpa
Merkatu ttikia

8€

Tel. 948 635 458
www.ttipi.net

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zuzendaritza orria: 3.000
URDAZUBI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttpa

KULTURA → URRIAREN 26AN

Bertsu saio batekin ideki ditu ateak Larreko kulturguneak

Xilaba txapelketako kanporaketa

Franck DOLOSOR

2014ko urriaren 11a mugarrria izan da kulturarantz, egun horretan ateak ideki baizituen Larreko izena duen Senpereko kultur areto berriak. Jean Pierre Soudre Ixtilarte *Larreko* bertsulari ibarrundar zenari ezin zitzaion omenaldi ederragorik egin. Gainerat, lehen ekitaldia bertsu saioa izan zen eta taulen gainean 30 urte baino gutxiagoko sei bertsulari agertu ziren, tartean 4 emazte eta gai emalea bera emaztea hura ere. Xilabak, Ipar Euskal Herriko bertsu txapelketak, berritasun frango ekarri zuen Senpererat. Orotarat, 250 entzule bildu ziren kulturgune berrian; dena den, goizetik suma zitekeen besta giroa Senperen, Bertsu Eskolen Eguna gure herrian ospatu baitzen.

Bertsu txapelketako kanporaketa izanagatik, umoreaz eta giro onaz gozatzeko parada izan zen. Bertzalde, negar malkoak ikusi ziren zenbait entzuleren begietan Lur Renteriak agurra eskaini ziolarik

bere osaba Aitor Renteria *Txatori*. Joan den ekainean zendu zen Berriategunari kaze-tari bertsuzalea. Hala ere, berehala heldu ziren zortziko haundiko arketak, eta giroa umoretsuagoa izan zen Xumai Muruak eta Maddi Sarasuak aitaxi-amaxien roletik kantatu behar izan zutelarik. Bakantzetarat joateko asmoa dutela eta, beren seme-alabei kontsulta egin nahi lieke Maddik, iloben zaintza koordinatu ahal izateko. Xumai aldiz, ez du deus galdegiteko beharrik sentitzen. Umore fina erakutsi zuten azkaindarrak eta itsasuarrak. Lur eta Battitt Crouspeyrek eman zieten segida zortziko haundiko lanei, eta bi errefuxiatuaren larruan sartu behar izan zuten. Senperen urte anitz pasaturik, sorterrirat itzuli nahi zuela Lurrek. Battittek aldiz, Senperen gelditzea erabaki du. Eztabaida sutua eskaini zuten bi bertsulariek eta ez zen maila jautsi Maddalen Arzallus eta Miren Artetxek osatu zuten lanean. Arrantzale familia bateko ama da Miren, eta alaba Maddalen. Amaren itsasuntzian lan egin izan zuten Maddalenek, eta



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Xilaba txapelketako saioarekin ideki zuten Larreko kulturgune berria.

nahiz bertze lan batean aritu azken denboran, orain langabezian izanik lan eske joan zaio amari. Honek, aldiz, postu hura gaur egun beste norbaitena dela erantzun dio.

Zortziko ttikiko ofizioetan umore finez aritu ziren Xumai eta Battitt. Merkaturak barazkiak saltzen ari dira biak, eta orenak aitzina doazela ikusirik, Xumai prezioak apaltzen hasi da. Irriak entzun ahal izan ziren aretoan, eta bi mutilen arteko bertsualdiari esku zarta luzeak eskaini zizkion publikoak.

Puntuei erantzuteko eta hitzari kantatzeko garaia heldu zen zortziko ttikiko lanak burutu bezain laster. Maddaleni solasa bezala etorri zitzaion bertsua eta gusturat agertu zen.

Kartzelako lanean hamarrek ttikian aritu behar izan zuten bertsulariek. Adineko bikotea direla, eta promotore batek etxea erosteko eskaintza egin diela zioen Ihintza Ostolazak eman zien gaiak. Eman beharreko arropostuaz eztabaidak entzun ziren, eta Battitt eta Maddik osatzen zuten lehen bikoteak saio umoretsua egin bazuen ere,

aski seriozki bururatu zen saioa, Xumai eta Maddalen eta Lur eta Mirenen lanekin.

MADDALEN ARZALLUSEK PUNTU GEHIEN

Maddalen Arzallus izan zen puntu gehien erdietsi zuena (224), eta ondotik sailkatu ziren Xumai Murua (216), Maddi Sarasua (212,5), Battitt Crouspeyre (183) eta Lur Renteria (174). Xilaba hasi aintzin Miren Artetxek jakinarazi zuen ez zuela txapelketan parte hartuko saio bakarrean baizik 6 koplakari izateko gisan taulen gainean eta honenbestez epaimahaiak ez zuten bere lana epaitu.

Maddalen Arzallus hendaiarra biziki pozik agertu zen emaitzaren gusturat eta aise aritu baizen taulen gainean. Bertsuzaleek ere eskertu zuten bere presentzia 2008ko lehen edizioan izan ezik ez bairuen geroztik sekulan parte hartu Xilaban. Bertsualdi ederra egin izanagatik Battitt Crouspeyre ez zen sailkatu finalaurrekoetarat joateko. Dena den, lehiatik eta odoletik urrun da goen giro ona eta saioa azpimarratu zuen.

Senperetarek bihotzetik eskertu zioten *Senperen Kantuz* airearekin kantatu zuen agurra *Larreko* eta Matxin Irabola gogoratuz.

Saioaren ondotik bestak segitu zuen Senperen, lehenik Larrekoan berean elkarteko boldonresek eskaini edariak, pintxoak eta bixkotxak gozatzeko parada izan baitzen. Geroago, Senpereko Oxtikea Gaztetxean segitu zuen gaualdiak, Bidelpurra eta Guri5 taldeen kontzertuekin. Egun hauetan Xilabaren finalerdiak iragaiten dira Larresoron eta Aiziritzen. Finala Baionan jokatu da azaroaren 15ean eta txapelketaren berriak jantziko du txapela aurtentzen Amets Arzallusek ez baitu parte hartzen. Hendaiarrak hiru aldiz segidan irabazi du txapela baina Euskal Herriko txapelketan bilakatu baizen 2013ko abenduan, ohiturari jarraikiz ez du bere lurraldeko txapelgoan esku hartzen.

Eta orain Senperen noiz ospatuko da ondoko bertsu saioa? Bertsulariak maiz biltzen dira Laraldean eta orain 330 toki dituen areto ederra dute Larrekoren herrian...



ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Pascal Lascube eta **Maidier Mendionde**, Sarakoak, urriaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



DONEZTEBEKO FERIETAN

HERRIAN
egonen gara

SORTZEAK

Urko Telletxea Morante, Lesakakoa, urriaren 12an.

Saioa Tapia Mutuberria, Lesakakoa, urriaren 20an.

Mikel Zubieta Elizagoien, Etxalarkoa, urriaren 14an.

Imanol Lacarra, Sarakoa, urriaren 6an.

Arhane Gurrutxaga Olazabal, Aresokoa, urriaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Hortakoak b. 711659493 | 948 635 458

HERIOTZAK

Manuel Gamio Garbisu, Zigakoa, urriaren 6an, 79 urte.

Juani Leiza Zugarramurdi, Arantzakoa, urriaren 12an, 83 urte.

Martin Sarasola Arretxe, Lesakakoa, urriaren 12an, 77 urte.

Ramona Jaurena Ustariz, Arizkungoa, urriaren 16an, 92 urte.

Jose Lorenzo Rementegi Irisarri, Berroetakoa, urriaren 17an, 74 urte.

Manolo Sanz Martinez, Berakoa, urriaren 17an, 96 urte.

Javier Aizpuru Salaburu, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 18an, 82 urte.

Juan Blas Jaurena Iturbide, Arizkungoa, urriaren 18an, 78 urte.

Alberto Agirre Huarte, Zozaiakoa, urriaren 19an, 82 urte.

Bibiana Mitxelena Taberna, Arantzakoa, urriaren 19an, 78 urte.

Juan Maiz Bergara, Arantzakoa, urriaren 20an, 84 urte.

Jose Joaquin Plaza Zugarramurdi, Lekarozkoa, urriaren 21ean, 60 urte.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

— TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA —
— LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK —

MOTORRA → HAMABI DENBORALDIEN ONDOTIK

Kamioi zirkuitoetara adio erran diete Mariezkurrenak eta Ederki tailerreko taldeak

2011n Nogaron lortutako garaipena izan da lorpenik handiena

TTIPI-TTAPA

Javier Mariezkurrenagidariak eta Doneztebeko Ederki Tailerreko eskuderiak adio erran diete denboraldiari baita kamioi karreren zirkuitoari ere. Asteburu honetan Frantziako Le Mans zirkuito famatuaren inguruan azken karrerak eta oraingoak, ez dute aitzinera gehiagotarik parte hartzeko as-

morik, hamabi denboralditan zirkuitoetan ibili ondotik.

Taldearen azken denboraldia ez da ohikoa izan. Joan den urtera arte erabilitako kamioia saldu zuten eta honenbertzez zirkuitoa uztea pentsatu zuten iaz, «baina saltzerakoan akordio batera ailegatu ginen eta aurrean lau karrerak egin ditugu piloto bat behar zuen Frantziako Lion Truck Racing taldearekin eta errentan hartutako kamioi batekin».

Europako txapelketako bederatzi karreretatik lautan atera da Ma-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Javier Mariezkurrena Espainiako txapelketan hirugarren izan zen.

riezkurrena. Ekainean Los Arcosen eta Nogaron (Frantzia) eta urriaren 4 eta 5ean Jaraman (Espainia) eta urriaren 11 eta 12an Le Mansen. Halere hamabosgarren postua lortu du sailkapen orokorrean eta Steffi Halm taldekidearekin batera seigarren postua lortu dute taldekako sailkapenean. Le Mansen azken karreraren hamakargarren postua lortu zuen Doneztebeko gidariak. Gainera, Jaramako asteburuan bi karreratan hirugarren

postua lortu zuten eta honenbertzez, Espainiako txapelketan ere hirugarren izan zen Mariezkurrena.

2003an hasi zen Javier Mariezkurrenagidari eta Doneztebeko Ederki Tailerreko taldea Europako zirkuitoko karreretan parte hartzen. Hamabi denboraldi osatu dituzte, bere gazi-gozoez. Unerik onenaz galdetzerakoan, «dudarik gabea 2011n Nogaron karrera irabazi genuenean, hori lortu zu-

en lehenbiziko talde pribatua izan bainen, poza handia izan zen» erantzun digute taldekideek. 2012an ere bigarren postua lortu zuten Nogaron. Zirkuitoak betirako utziko dituztela aipatu digute, «baina bertze zerbait egitea, nork daki».

Mariezkurrenak eta Ederki Tailerreko taldeak eskerrak eman nahi dizkiete «gure taldearen ondotik laguntzen eta animatzen ibili den jende guztiari eta Javierren Fans Klubari».

HERRI KIROLA → GIZASEMEAK ZORTZINAKA ETA EMAKUMEAK SEINAKA

Amaiurren abiatuko da Nafarroako sokatira txapelketa larunbatean

Beti Gazte eta Amaiurko taldeak izanen dira lehian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketa azaroaren 1ean, larunbat arratsal-

deko 6etan Amaiurren jokatu den saioarekin abiatuko da. Gizonezkoak zortzikotetan bi pisutan lehiatuko dira, 640 eta 600 kilotan. Bi kategoriatan Berriozar, Txantrea, Amaiur eta Beti Gazte ariko dira. Emakumezkoak, berriz, seinaka eta 375

kiloko kategorian ariko dira. Txantrea, Berriozar-Amaiur eta Basaburua-Imotz izanen dira lehiakide. Talde mistoak ere pisu bakarrean lehiatuko dira, 550 kilokoan. Zortziko taldeak izanen dira, lau gizonezko eta lau emakumezkoek osatuak



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Beti Gazte eta Amaiur zortzinaka lehiatuko dira orain.

(Txantrea, Berriozar eta Amaiur).

Kategoria guztietan bi jardunaldi jokatu dituzte, liga sistema bidez. Amaiurko lehen jardunaldian gizasemeak 640 kilotan eta emakumeak ariko dira. Berriozarren, azaroaren 8an jokatu da kategoria

hauetako bigarren eta hondar jardunaldia.

Azaroaren 16an Aldatzen gizasemeen 600 kiloko eta txapelketa mistoaren lehen jardunaldia jokatu da eta azaroaren 22an Lakuntzan, kategoria hauetako bigarren eta hondar jardunaldia.

ERREMONTA → FINALA ABENDUAREN 20AN

Ezkurra II.ak debuta egin du binakako txapelketan

Sei bikote sartu dira lehian

TTIPI-TTAPA

Sei bikote hasi dira binakako 44. erremonte txapelketa ofizialean, joan den urtean Xanti Utergak eta Ionek jantzi zuten txapelaren bila: Urriza eta Agirrezabala, Zeberio II eta Barrenetxea IV, Ezkurra eta Ion, Etxeberria IV eta Etxeberria III, Uterga eta Agirrezabala eta Ezkurra II eta San Miguel.

Bikote guztiek badute binaka txapeldun izandako erremontelariaren bat: Ezkurra (1994, 1999 eta 2006), Ion (2011 eta 2013), Etxeberria III (2010) Zeberio II (1998, 2001, 2003, 2004, 2005, 2009 eta 2011), Barrenetxea IV (2012), Urriza (2007, 2008, 2010 eta 2012), Uterga (2013) eta San Miguel (2006 eta 2008). Debutari bakarri izanena da, Ezkurra II. San Miguelekin bikote egina du eta ilusioz hartu du

EHIZA → ESPAINIAKO TXAPELKETA KANTABRIAN

Juan Esteban Etxegarai beratarrak erbi arrastoko kopa irabazi du

Asier Etxeberria oiartzuarrarekin bikote eginez borts zakur erabili dituzte Reinosan

TTIPI-TTAPA

Juan Esteban Etxegarai Mikelperizena beratarrak eta Asier Etxeberria Arruti oiartzuarrak beraien borts zakurrekin osatutako taldeak Espainiako erbi arrastoko Kopa irabazi dute Kantabriako Reinosan, Sajako Ehiza Erreser-



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Binakako txapelketan parte hartzen hasi diren sei bikoteak.

txapelketarako deia: «Azken aldian ongi ari naiz jokatzeko eta berria eman zidatenean ilusioz hartu nuen. San Miguel arras ongi ezagutzen dut, frontoi laburrean konpare bat txapelketetan parte hartu eta bietan finalera ailegatu gara. Galarretan ere bikote ona osatzen ahal dugula uste dut. Julenek la-

saitasuna ematen dit, badakit eta bizkarrak ongi zainduak ditudala. Nere jokua hori da eta tantuak lehenbailehen akitzen saiatuko naiz». Koteto osabaren kontra ere aritu beharko du: «Zoragarria litzateke elkarren kontra finalean aritzea, baina hori urrun dago eta zail izanena da», aipatu du gazteak.

Urriaren 23an hasi eta azaroaren 22an akituko den ligaxka denek denek kontra jokatu dute eta lau lehenbizi-koek lortuko dute finalerdietarako txartela. Finalerdia azaroaren 29an hasita jokatu dira eta hiru partidetatik bi irabazi beharko ditu abenduaren 20ko finalean izan nahi duenak.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEKA

Etxeberria eta Etxegarai, txapelketan parte hartu zuten borts zakurrekin.

ban jokatu txapelketan. Galiza, Gaztela eta Leon, Asturias, Katalunia, Kantabria eta Euskal Herriko taldeek parte hartu dute txapelketan.

Berako Ehiza eta

Arrantza Elkarteko Etxegarai eta Oiartzungo Bizardiako Etxeberria hiru erbi-zakur eta bi sabuesorekin lehiatu zuten ordubeteko konpetizioan. Gisa honetako txapelketetan lehen al-

dia izan arren, garaipena lortu zuen taldeak. Kantabriako Jose Gutierrezen taldeak bigarren postua eskuratu zuen eta Asturiasko Juan Carlos Alvarezen taldea izan zen hirugarren.

PILOTA → 22 URTEZ BEHEITIKO BURUZ BURUKOAN

Ander Errandonea beratarra Nafarroako txapelkun izan da

18-13 irabazi zion finalean Jon Olaizola lesakarrari

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako bi pilotari aurrez aurre izan ziren urriaren 11n Nafarroako 22 urtez beheitiko buruz buruko pilota txapelketaren finalean. Iruñeko Labriten jokatutako partida gogor eta ikusgarri baten ondoren, Ander Errandonea beratarra 18-13 irabazi zion Jon Olaizola lesakarrari.

Iruñeko Labrit pilotalekuan jendea aunitz

bildu zen etorkizun handiko Bortzirietako bi pilotarien arteko finala ikusteko. Ander Errandoneak Inaxio aita izan zuen botillero eta Olaizolak Iker tainta. Partidak 42 minutu iraun zuen eta Olaizolak bi tantu egin zituen sakez eta Errandoneak 5. Partida gogorra joan zen eta hasieran bana, launa, seinena, zazpina eta zortzina berdindu ondoren, beratarra nagusitu zen.

ERRIOXAN ERE TXAPELA

Baina Nafarroakoa ez zen izan asteburu horretako txapel bakarra Ander Errandonearentzat. Izan ere, biha-



ramunean, urriaren 12an, Errioxako Gobernuak antolatutako eskuz binakako txapelketa ere irabazi zuen, jubencil mailan. Otadui bizkaitarrekin bikote eginez 22-21 irabazi zieten Errioxako Petite eta hainbatetan bikotekide izan duen Iñigo Martinez beratarri.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Errioxako gazte mailako finalistak Titinekin goitien. Behean, Jon Olaizola eta Ander Errandonea.



PILOTA → ABENDUAN JOKATUKO DIRA FINALAK

51 bikote hasi dira Bortzirietako eskuz binakako txapelketan

Zortzi kategoriatan banatuak

TTIPI-TTAPA

51 bikote parte hartzen hasiak dira joan den urriaren 22an Beran abiatu zen Bortzirietako

ko eskuz binakako hamalagarren pilota txapelketan. Pilotari gehienak bortz herrietakoak badira ere, Baztan, Mallerreka, Oiartzun, Hondarribi, Irun, Ultzama eta Lapurditik ere etorritako pilotariak ari dira. Abenduaren 13an edo



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Berako Eztegarra pilotalekuak hainbat partida hartuko ditu aurtengoan.

20an jokatuko dira finalak, baina zein herritan ez dago erabakia oraindik.

Partidak Bortzirietako pilotalekuan jokatuko dituzte, zortzi kategoriatan banatuak: tti-

kiak, umeak A eta B, ki-
muak A eta B, haurrak,
kadeteak eta 22 urtez
azpikoak.

urriak 30 - azaroak 13

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Antzerkiak



BERA | 2014.11.07-21

Gaizka Sarasolaren 'Urak ttiki dire' Kafe Antzerki Zikloan

Hiru egunez hiru antzezlan ikus-
teko aukera izanen da Beran: *Erdaldun berrien kluba*, *Urak ttiki dire* eta *Kokakola eta barea*, azaroaren 7, 14 eta 21ean.

Azokak



ARANTZA | 2014.11.01

Baserritarren Egunaren XIX. edizioa larunbatean

Kultur Egunen barne hainbat ekitaldi izanen dituzte Arantzan eta horien artean, Ekaitza Elkartek antolatuta, azaroaren 1ean XIX. Baserritarren Eguna egingen dute.

Bestak



AURTITZ/ARANO | 2014.11

Sanmartinak Aurtitzen eta Aranon

Aurtitzen azaroaren 7tik 11ra hainbat ekitaldi izanen dituzte eta Aranon azaroaren 8an ospatuko dituzte sanmartinak. Xehetasunak 24 eta 34. orrialdeetan.

Tailerrak

BERA

Serigrafia tailerra

Urriaren 30ean Gaztetxean, 17:30ean.

Baratzegintza**Biodinamikoari buruz**

Azaroaren 7, 8 eta 9an, Gaztetxean.

Lehiaketak

LESAKA

Beti Gazte Elkartearen argazki lehiaketa eta 75. urteurrenko logotipo lehiaketa

Urriaren 31ra arte aurkez daitezke argazkiak eta azaroaren 15era arte logotipoak.

Ospakizunak

ARIZKUN

Larrazken kulturala

Urriaren 30ean sagar dastaketa, ikastaroa. Azaroaren 1ean Kiri-koketa Besta.

URDAZUBI

Gaztain erre besta

Urriaren 31n frontoian, 19:00etan.

GOIZUETA

Umore Ona Eguna

Azaroaren 8an.

LESAKA

Independentzia Eguna

Azaroaren 15ean.

BERA

Julio Caro Barojari omenaldiak

Azaroaren 15ean 19:30ean Kultur Etxean, azaroaren 16an hilerrian 12:00etan.

Bertsoak

LESAKA

Zahar Etxean saioa

Azaroaren 1ean, 17:00etan.

Berto desafioa

Azaroaren 1ean lurre-

Erakusketak

LEITZA

'Diruaren sexu ezkutua'

Azaroaren 4ra arte udaletxean.

ARANO

Garai bateko argazkiak eta haurren eskulanak

Azaroaren 8an.

BERA

'Don Julioaren arrastoa'

Azaroaren 23ra arte Kultur Etxean.

SUNBILLA

'Paradisua basatia'

Azaroaren 1etik abenduaren 15era Iñaki Atxaren argazkiak Aritztagain kanpinean.

Hitzaldiak

DONEZTEBE

'Emakumea eta kirola'

Urriaren 31n, Mankomunitatean, 11:30ean.

ARANO

Elizako erloju zaharrari buruz

Azaroaren 8an, 17:30ean.

ELIZONDO

Guraso Eskola

Urriaren 28an, azaroaren 4, 11 eta 13an

droga kontsumoari buruz. 17:00etatik 19:00etara Arizkunenean.

ARIZKUN

'Jakobian Eraikina' liburuaz solasean

Azaroaren 3an 19:00etan.

GOIZUETA

'Wukro'

Azaroaren 7an Ganbaran, 19:30ean.

Lidia Montesinosekin

Azaroaren 14an Gan-

baran, 19:30ean.

'Euskararen kate hau-tsiak' liburuari buruz

Azaroaren 15ean Ganbaran, 19:00etan.

Ipuin-kontalariak

ARANTZA

Kultur Egunen barne

Urriaren 31n Baskulan 17:00etan.

Antzerkiak

BERA

Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 7an *Erdaldun berrien kluba*,

Errekalde ostatuan 22:00etan.

Azaroaren 14an *Urak ttiki dire*, Katakua ostatuan 22:00etan.

Azaroaren 21ean *Kokakola eta barea*, Auzoa ostatuan (22:00).

Julio Caro Barojaren omenez

Azaroaren 9an *Los viajes de Don Julio*, Kultur Etxean (18:30).

GOIZUETA

'Aresoko harria'

Azaroaren 8an 17:30ean Ganbaran.

PROPOSAMENA

DONEZTEBE

Udazkeneko Feriak azaroaren 14an

Udazkeneko Ferietan hurrengoak Doneztebe-koak izanen dira. Goizean, aziendak, nekazaritzako tresnak, merkatarien produktuak... ikusgai eta salgai izanen dira eta eguna borobiltzeko arratsaldean herri kirol jaialdia izanen da. Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala orduan jokatu da eta Inaxio Perurenak harri-jasotze erakustaldia eskainiko du.



ta eta Lesaka Haizegua ostatuan, 23:00etan.

Gaztain jatea

Azaroaren 8an Sustrai Colina eta Jon Maia, Josu Goikoetxearen gidaritzapean, 20:00etan Basurden.

IPAR EUSKAL HERRIA

Xilaba Bertsulari Xapelketa

Azaroaren 2an Aiziritzeko herriko gelan, finalaurrekoa (17:00).
Azaroaren 15ean Baionako Lauga gelan finala (17:00).

Kontzertuak

ARANTZA

Eramun Martikorena Beñat Mitxelena akordeolariarekin

Azaroaren 8an eskolako gimnasioan, 19:30ean.

LESAKA

Atarrabiako abesbatza

Azaroaren 2an Kultur Etxean, 12:30ean.

BERA

Letoniako abesbatza

Azaroaren 1ean Mas-ka Youth Choir de Riga Kultur Etxean (20:00).

Kantu afaria Ibardinen

Azaroaren 8an Mendiko sagardotegian 21:00etan.

Iruñeko Orfeoia

Azaroaren 16an Kultur Etxean (12:30).

ELIZONDO


Folk ametsetan Arizkunengan

Azaroaren 9an Maria Salgadorekin *Abrazo-Abrazo: musica de la raya*, 19:00etan.
Azaroaren 16an Ruper Ordorika, 19:00etan.

AMAIUR

Paxkal Irigoien 'Lau sasoinak' kontzertua

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK




Pupu eta Lore triste
Pirritx umore zakurra
Porrotx beldurtuta
Marimotots pozik

KATXIPORRETA

Elkar-Katxiporreta, 2014

Nor gara? bildumaren baitan, 2 urtetik gorakoentzako lau ipuin kaleratu ditu Elkar-Katxiporretak. Uxue Alberdik idatzi ditu testuak eta Julen Tokero egin ditu marrazkiak. Ipuin horietako batek *Pupu eta Lore triste* izenburua du eta honetan Pupu eta Lorek tirita eta lorea trukatuko dituzte, eta pozik geldituko dira, ez uste!. *Pirritx umore zakurra* ipuinean Pupu eta Lore Pirritxen ume titikoak direla ikusiko dugu. Titia emanaz eta titia hartuz, elkar asetzen dira hirurak. *Porrotx beldurtuta* ipuinean Porrotx ispiluarekin solasean eta jolasean ikusiko dugu, eta bere gorputz-atalez jabetuko da. *Marimotots* pozik liburuan, azkenik, Marimotots txabolak egiten ikusiko dugu, zuhaitz gainean eta erreka ur hotzetan biluzik bainatzea atsegin due-
la erakutsiko digu.



Tania Tank

TANIA DE SOUSA

Talka Records, 2014

Hainbat taldetan ibili ondotik, bere bakarkako liehendabiziko lana kaleratu du Tania De Sousa zestoarrak (Gipuzkoa): *Tania Tank* diskoa. Hamabi kantu bildu ditu, maitasuna hizpide dutenak gehienak. Bonberenean grabatu du lana, Karlos Osinaga Txap teknikariarekin, eta Fermin Muguruzak ekoitzi du, Talka Records zigilupean. Pop doinuak dira nagusi, baina badira punk-rock nahiz disco ukituak dituztenak ere. Hitzei dagokienez, De Sousak idatziak dira denak, Fermin Muguruzak egin duen *Talka* kantua izan ezik. Ibilbide berri honetan, Taniak hainbat lagunekin osatu du taldea: Fermin Bouza (gitarra, sintetizadoreak eta koroak), Maitane Alonso (baxua) eta Ander Del Sol (bateria). Musikari ezagunen kolaborazioak ere izan ditu disko honetan: Xabi Solano, Maite Mursego, Mikel Azpiroz, Koldo Soret, Ferminekin aritzen den haize instrumentuen taldea (Jontron, Lonbi eta Fino) eta Fermin bera.



'Nairobitarra' eta
'Munduko ipuinak'
jokoan bertsiu digitalak

WWW.LUDITOYS.COM

Gero eta gehiago dira sakeleko telefono edo tablet gailuak erabiltzen dituzten haur, gazte eta gurasoak. Bada horiengan pentsatuz, *Nairobitarra* eta *Munduko ipuinak* jolasen bertsiu elektronikoak sortu ditu Luditoys Factory S.L. enpresak. *Munduko Ipuinak* smartphone zein tablet gailuetarako egokitua dago eta *Nairobitarraren* konplexutasuna kontuan hartuta, soilik ordenagailu eta tablet gailuetarako prestatu dute eta hauxe da Interneteko lotura: <http://nairobitarra.luditoys.com/jokoa.php>. *Munduko ipuinak* jokoan, zortzi eskualdeetako ipuin bana aurkituko ditu erabiltzaileak. Sahara, Laponia, Patagonia, Andeak, Himalaia, Euskal Herria, Alaska eta Australiako umeen ahotik euren bizimodu ezagutuko dute haurrek. Hauxe da joko honen lotura: <http://nairobitarra.luditoys.com/munduko-ipuinak.php>.

Azaroaren 2an Herriko Etxean, 18:00etan.

Filmak/bideoak
DONEZTEBE

Zinema

Azaroaren 9an *Campanillas, hadas y piratas* 16:30ean eta *Divergente* 18:30ean.

ARANTZA

'Arrakala' dokumentala

Urriaren 31n 19:30ean Baskulan.

LEITZA

Zinema

Urriaren 31n eta azaroaren 2an *Her* filma.
Azaroaren 7an eta 9an *El lobo de Wall Street*. Ostiraletako saioak 22:30ean, igandetakoa 19:30ean.

GOIZUETA

Bideo emanaldia

Urriaren 31n Ander Olaizolarekin, 19:00etan Ganbaran.

Azokak/Ferriak

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

DONEZTEBE

Udazkeneko Ferriak

Azaroaren 14an.

Bestak

AURTITZ

Sanmartinak

Azaroaren 7tik 11ra.

ARANO

Sanmartinak

Azaroaren 8an.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen

irteerak

Azaroaren 2an Arizkundik Burgara (08:00).
Azaroaren 9an Urda-zubi-Harritxuri (07:30).

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 auto-erentzako aparkalekua. 350.000€ (prezio negoziagarria). Deitu 19:00-etatik aurrera. ☎636 880115.

LEITZA. Pisua salgai, bajora eta igogailuarekin. 90.000 euro. ☎660 856246 / 634 406302.

LESAKA. 98 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela 1, egongela su bajorarekin, sukaldea despentsarekin eta mobleztatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio ekonomiko. ☎646 774177.

DONEZTEBE. Bi logelako pisua salgai. Egoera onean. 15m²ko trastelekua. 110. 000 euro. ☎630 160353.

GOIZUETA. Eguzki-Leku etxean, bizitza bat salgai. Benetako interesa duenak deitu dezala. ☎649 753484 (Ana).




rza eta jangela. Ondo komunikatua eta bista onekin. ☎687 926414.

DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 350 euro. Pisua estrenatze-ko dago. ☎674 847735.



NARBARTE. Hiru logelako etxe berritua errentan emateko. Argitsua eta lasaia. Wifi. Prezioa: 300 euro. ☎677 765753 /domekenea1@gmail.com.



LESAKA. Pisua salgai edo errentan emateko, erosteko aukerarekin. 4 logela, bainugela, egongela haundia, sukaldea eta terraza. ☎677 356461.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. Igogailua. Mobleztatu gabe. ☎615 707323.

LUZ SAINT SAUVEUR. Eski denboraldi guztirako 6-8 pertsonendako bizitza errentan emateko. Duplexa, beheko sua, terraza eta aparkalekua. ☎630 946241.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

NARBARTETIK BERA-RAINO, errepidearen bi aldeetara dauden herrietakoren batean etxea edo pisua alokatuko dut. 300-500 euro arteko eskaintzak ba-

karrik aztertuko ditut. Whatsapp edo e-mail-ez soilik. ☎633 208067 / kastelenea@gmail.com.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eitzetako plaza lur azpiko garajea salgai. ☎646 774117.

LESAKA. 93 m²ko bajora salgai, Koskontako Bidea 11n. Etxebizitza egiteko aukerarekin. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

LESAKA. Eitzetako plaza lur azpiko garajea salgai. 8.100 euro. ☎948 630474.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

BERA. Partzela urbanizatutako salgai. Deitu 18:00etatik aitzinera. ☎618 963226.

LANA

eskariak

Haur Hezkuntzako ikasketak dituen **emakume euskaldunak** arratsaldez lan eginen luke, haurrak zaintzen edo edozein lanetan. ☎663 695410.

Emakume euskalduna asteburuetan lan egiteko prest. Doneztebe edo Elizondo inguruan bada hobe. Edozein lan dela ere, deitu eta hitz egingo dugu. ☎636 751487.

ELIZONDO. Emakumea orduka garbiketara lanetan ariko litzateke. ☎626 507436.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (urriaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 35 € (=)

Zerri gizena
1,120 € kilo. (-0,035)

Zerramak:
0,540 € Kg/bizirik. (-0,020)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,22
1.koa 4,02

2.koa 3,84

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,32

1.koa 4,06

2.koa 3,89

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00

idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,60/8,20

8-10 kilokoak: 6,40/7,10

Doneztebeko **emakume** batek etxeak garbitzen, haur edo adinua zaintzen lan eginen luke. ☎673 372938.

ESKUALDEA. Emakumea kotxearekin lanerako prest: garbiketa lanerako, pertsona helduak zaintzeko, ostalaritzan logelak garbitzen, lixutegian... ☎639 288613.

Pertsonak bat etxetik **iragarkiak jartzen** lan egiteko prest dago. ☎699 382673.

LANA

eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Jatetxe batean zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Frantsesez pixka bat jakin behar du. ☎948 599082 (Goizean edo 17:00etatik aitzinera deitu, eguerdian ez).

SARA. Urtxola jatetxean zerbitzaria behar du asteburuetan lan egiteko, jatetxean eta ostatuan. Esperientziarekin. ☎(0033) 559 542131/686 561525.

ZERBITZUAK

denetarik



ZERBITZUAK

eskariak

LEITZA eta INGURUAN josten ikasi nahi dut. ☎695 716894.

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Euskal Filologian lizentziatua **Euskarako klaseak** emateko prest, idatzia nahiz ahozkoa, maila guztietan. Deitu konpromisorik gabe. ☎661 772065.

Lehen Hezkuntzako titulua duen **mutil bat**, DBH eta Lehen Hezkun-

tzako klase partikularrak emateko prest dago, ingelesa barne. Doneztebe eta zonaldea. ☎677 193134.

MOTORRAK

salgai

Pascuali traktorea salgai. 18 zaldikoa. Direkzio eta freno mekanikoak ditu. Egoera onean. 2.500 euro negoziagarriak. ☎665 731414.



Opel Astra 1.7 CDTI, 2007. urtekoa eta 68.000 km dituena. Oso zaindua dago eta beti garran lo egiten du, 5.000 eurotan salgai. ☎679 877229.



ANIMALIAK

salgai

SUNBILLA. Zakurkumeak salgai. Ama Border Collie eta ata euskal artzain zakurra. ☎609 047743.



Beagle arrazako zakurkumeak salgai. ☎679 680243.



DENETARIK

salerosketak


ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta

haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



LESAKA. Hustutako baserri baten biga zaharrak salgai. ☎948 630474.

Bizikleta salgai, berriberria. Konpromisorik gabe ikusten ahal da. 150 euro. ☎630 180805.



2. eskuko musika-tresnak salgai: akordeoiak, teklatuak, gitarra akustiko eta elektrikoak... ☎620 468282.



Gerra Zibileko dokumentu originala salgai. ☎635 875730.



Haritzezko altzari berria, erabili gabea. Neurriak 1,95 zabalera, 2,20 altuera eta 0,57 sakonera. Talletxean erosita-

TTIPI-TTAPAK diseinatzailea behar du ordezkapenerako

Nahitaezko baldintzak:

- Euskaraz jakitea
- QuarkXPress, Photoshop, InDesing menperatzea

Kontuan hartuko da:


- Diseinu grafikoan esperientzia izatea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea
- Ordutegi malgutasunerako disposizioa

Bidali curriculuma info@ttipi.net helbidera

Zauden tokian zaudela sar zaitetz mugikorrarekin www.ttipinet.net edizioan

ttipi-ttapa
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

koa, primeran dago. Prezioa dendan 4.000 euro. 1.300 eurotan salgai. Nahi izanez gero, dendara dei daiteke altzariaren egoeraz galdetzeko. ☎600 524041.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/699 461394.

3 ohatzeko litera salgai. Egoera onean, me-

tro 1 zabal, 2,55 metro luze. Armairu eta baldekin. Koltxoak eta 2 nordiko opari. ☎618 962622.



DENETARIK

oparitzeko

Larungo harria opari emateko, paretan zahar batean dagoena. Garroria norberaren esku. ☎626 774582.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Valentzian bizi den **AITORREK** urtea bete du urriaren 28an. Aunitz urtez Lesakako familiaren partetik! Laxter etorri, txokolata prest dugu eta! Muxo 1



Aunitz urtez etxeko ehiztari ttikienari! Muxo handi bat ataxiaren partetik!




Berako **ADUR** eta **ONATZ AROZENA ELRIKO** urriaren 22an urtea bete dute. Zorionak moxoletek! Muxu haundi bana familiaren partetik! Segi horrela!! Ea bizkotxo goxoa prestatzen dugun!



Berako **IRENEK** urriaren 16an urteak bete ditu. Zorionak izeba! Muxu aunitz eta bizkotxo ona prestatu!



Berako **ADUR** eta **ONATZ**ek urriaren 22an urte bat bete dute. Zorionak pottokos! Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Lesakako **JULEN CANAL ARTOLAK** 3 urte egin ditu urriaren 28an. Zorionak maitia! Segi beti bezain alai eta jator. Muxu handi-handi bat aitaxo, amatxo, Maitane eta Ugaizten partetik!



Sunbillako **UXUE IBARRA MARIEZKURRENAK** 7 urte bete ditu urriaren 28an. Zorionak familia guztiaren partetik. Mila muxu potolo eta segi beti bezain neska txintxoa eta alaia izaten.



UNAI IRAZOKI AGIRREK urriaren 28an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Doneztebeko **MATTIN RETEGI AZPIROZEK** azaroaren 2an 8 urte beteko ditu. Zorionak! Urte aunitz dira horiek! Ongi pasa egun haundi hori zure lagunekin, eta batez ere, aita, ama eta zure anaia Anderren partetik muxu potxolo-potxolo bat.



Zorionak **JONE!** Muxu haundi bat Aresoko lagunaren partetik! Ahal duzun hobekin pasa zure eguna! Gurekin nahi zaitugu!



Ongi etorri polittak Aresora! **ENARA BARANDARAIN MITXAUS** urriaren 3an eta **ARHANE GURRUTXAGA OLAZABAL** urriaren 23an jaio dira. Zorionak gurasoei eta muxu haundi bana! Erritmo ederrean ari zaigu handitzen kuadrila...



Lesakako **ALAIN ETXEPARE AIESTARANEK** 4 urte bete ditu urriaren 24an. Zorionak familia guztiaren partetik!



Sunbillako **HEGOA IRAZOKIK** urriaren 22an 3 urte bete ditu eta amatxi **AMPARO GUELBELZUK**, berriz, urriaren 30ean urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.



Zorionak **AIMAR-TXO!** Baserrikoen partetik eta bereziki aita, ama eta Aneren partetik, afari goxoaren esperoan gaude. Muxu haundia izebaren partetik!



JOXE MARI PETRIRENA motorzaleak urteak beteko ditu azaroaren 1ean. Zorionak alaba eta semearen partetik.



JOXE MARI LASAGA MATXAKOK urteak beteko ditu azaroaren 1ean. Aunitz urtez familiaren partetik.

hemen agertu nahi duzu?
www.ttipi.net

Lagunen lagun, zuragotz fina
Mendia beti gozoan
Farrandazale, zirikatzaile
Isakara beti ahoan.
Kotto ezin ahantzi
Urteak badauzi
Federatzi aurtengoan
Baina gordeko zaitugu beti
Gutzien bihotz zokoan.
Zure lagunak
Kotto beti gurekin

ttipi-ttapa
UDAZKENEKO
ESKAITZA
BEREZIAK

KOSKUNTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com | www.ttipi.net

2.500 FLYER A5 ↔ 143€
5.000 FLYER A5 ↔ 165€

KIDLORETAN | OXSENJA BARNE | INPRENTA BARNE | GARRAIOA BARNE | BEZA BARNE | EPEA: 10 LAN EDUN

FLYER A5
210 mm
148 mm



Jakinarazpena

2014ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoitzua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2014ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2014ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Etxalar, 2014ko urriaren 1a

Lehendakaria,

Miguel Maria Irigoien Sanzberro



2015^{eko} egutegi pertsonalizatuak



Urte osoan eskura izateko!



Mahai gaineko egutegiak

Modelo ugari aukeran
Trokelatuak,
paper edo PVCzkoak...



Paretan jartzekoak

Kontsultatu neurriak
hilabeteak ilargiekin,
euskaraz, elebitan...

Posterrak

Neurri handikoak
A1, A2, A3
paper lodian

Sakelekoak

55 x 85 mm
66 x 96 mm
Izkin borobilduak

ttipi txartela

MEN-ERABAZLEAREN BILKIDE
2007/11-15
BILKIDE
10000

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUISUTRUK

%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Rokontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 - F. 948 635 457
info@ttipi.net
www.ttipi.net

ZOZKETAK

624 ALEKO IRABAZLEAK

3 LIBURU "Aitarien sekretua" | Ibaizabal

Maite Zozala | ERRATZU

Luis M^o Telletxea | IGANTZI

Juani Aitxul | ITUREN

2 LAGUNENTZAKO AFARIA | Oitzko Ostaturu

Begoña Antzizar | LESAKA

TXIZTIL DVDa | Takolo Pirritx eta Porrota

Inmaculada Magaña | ELIZONDO

BERRIA HARRPIDETZA

M^o Luisa Dendarieta | ELIZONDO

2 SARRERA | Zuzarramudiko lezaak

Isabel Etxeberria | BERA

2 SARRERA | Aquarium

Migel Hita | IGANTZI

1

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



2

2 LIBURU

Sugar | Printza gurria...
Ekar
www.elkar.com



3

2 LIBURU

Ramoni Ramoni 1 Bidegorriko festa
Erein
www.erein.eus



4

TXANTXARIAK DVDa
Urtxintxa eskola
www.aria.net



5

JOKO BAT
Ttartalo
www.ttartalo.com



6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



DESKONTUAK

BERAUTO



BERA | %5 errekanbioetan



LESAKA
%10 lentzerian

Kattaloringorri arropa denda



ELIZONDO | %10eko deskontua

POTTOKI



ELIZONDO
%5 oparitzeko artikulu txikitetan



FOTO MENA ELIZONDO

ELIZONDO | %10 kopia digitaletan



DONEZTERE
%10, 30€tik gorako gastuan